Diseinatzen den unitate didaktikoaren ardatz egituratzailea honakoa izan daiteke: ezarriko diren elaborazioen prestakuntza–exekuzioa–justifikazioa. Irakaskuntza eta ikaskuntzako jarduerak ezarri beharko lirateke, sukaldaritzako elaborazioen garapena landu ahal izateko, aurreko etapen finkatu diren eragiketa–multzoak ere kontuan hartuz. Ikuspegi bateratua sustatzeaz gain, hain ohikoak ez diren egoerak eta errealitatetik oso hurbil egongo direnak aztertuko dituzten jarduerak ere egingo dira, ikasleei jarduerak egiterakoan autonomia eta ekimen handiagoa eskatuz.

Oinarrizko elaborazioak eta plater errazak oinarrizkoak eta esanguratsuak izatea gomendatzen da eta, horretaz gain, faktore hauen arabera bildu beharko dira: osagai nagusia, kontsumo–unea, elaborazioaren eskema, etab. Fase honetan alternatiben praktika landuko da.

Ikasleek elaborazioetan alternatibak edo aldaketak egiterakoan parte hartzeko aukera izan dezaten, izan daitezkeen bezeroek eska ditzaketan gauzei erantzuteko gaitasunak profesionaltasun handia eskatzen baitu.

Dena dela, fase bakoitzean landuko diren eragiketen eta prozeduren kopurua, garatu beharreko oinarrizko elaborazioen edo plateren kopurua eta formulatuko den unitate didaktiko bakoitzean egin beharko diren alternatiba–kopurua, irakaslearen ustez, ikasleek gaitasunak beregatzeko behar dituzten baliabideen eta beharren arabera izango dira.

LAUGARREN ETAPA: *“Sukaldaritzako tekniken elaborazioa ingurugiro–faktorea kontuan hartuz”*

Fase bakarra proposatzen da: “Sukaldaritzako eta ingurugiroa”. Egon daitezkeen unitate didaktikoaren ardatz egituratzailea honakoa izan daiteke: ingurugiroaren gaineko praktika desegokien identifikazioa, sortzen duten problematikaren azterketa, eta sektoreko enpresetan aplikatu beharko diren ingurugiroaren gaineko praktika egokien lantzea eta exekuzioa.

BOSGARREN ETAPA: *“Oinarrizko elaborazioak eta plater errazak aurkezteko, apaintzeko eta merkaturatzeko eragiketak”*

“Oinarrizko elaborazioen apainketa eta aurkezpenerako” eragiketa guztiak lantzen dituen fase bakarra egitea proposatzen da, baina ikaslearen menperatze–maila ziurtatzeko adina lan–egoera sortuz.

Ez da komenigarria fase hau isolaturik lantzea eta egokiagoa izango da ibilbide didaktikoan zehar ikusitako eragiketa guztiak bilduko dituen prozesu osoaren barnean aztertzea; hala ere, irakasleak fase hau azpimarratu beharko du eta bertan jarri beharko du karga didaktikoa, bertan kanpo–merkataritzarako eragiketak barne hartuko direlarik.

Formulatu beharreko unitate didaktikoaren ardatz egituratzailea ondokoa izan daiteke: oinarrizko elaborazioen eta plater errazen apainketarako eta aurkezpenerako eragiketen dedukzioa–exekuzioa.

Dena dela, etapa bakoitzean landuko diren eragiketen eta prozeduren kopurua, garatu beharreko sukaldaritzako elaborazioen edo produktuen kopurua, berorien apainketa, aurkezpenera

eta merkaturatzea eta formulatuko den unitate didaktiko bakoitzean egin beharko diren alternatiba-kopurua, irakaslearen ustez, ikasleek gaitasunak bereganatzeko behar dituzten baliabideen eta beharren arabera izango dira.

Landuko diren eragiketen eta prozeduren exekuzioak eskatzen duen neurrian sartuko dira unitate didaktikoetan kontzeptuzko (gertakariak, kontzeptuak, printzipioak) eta jarrerazko eduki desberdinak. Logikoki, lehenengo unitateetan, hau da, ikasleak poliki-poliki prozedurak eta eragiketak isolaturik exekutatzeko gaitzen dituztenetan, nabarmenduko da kontzeptuzko eta jarrerazko edukien eransketa eta, bigarren zatian, konplexutasun eta ikasleen autonomia handiagoz prozesu osoa osatzen denean, trebetasun teknikoetan gaitzeko ahalegina nabarmenduko da.

Azkenik, ez dirudi beharrezkoa modulu osoaren laburpenerako amaierako unitate didaktikoa ezartzea, bertan ezarritako eta landutako edukiak ondo finkatu direla uste baitugu.

Ikus daitekeenez, ibilbide didaktikoan proposatu diren alderdi azpimarragarrienak honela labur daitezke:

- Ikasleari, hasieratik, eduki antolatzailearen atzean dagoen prozesuaren ikuspegi orokorra eskaintzea, diseinatuko den irakaskuntza-prozesuak ikaskuntza esanguratsuak eskainiko dituelarik.
- Irakaskuntza-prozesua, hasieratik, ingurunetik erraztasunez ateratako adibideetan eta informazioan oinarri daiteke, ikaskuntzen esanahia indartuz.
- Multzoko eduki guztiak nahiko erraz sartzeko aukera eskaintzen du, ibilbideko etapa desberdinak aztertzen diren neurrian, gertakariei, kontzeptuei, printzipioei eta jarrerai buruzkoak landuz.

JARRAIBIDE METODOLOGIKOAK

Hasierako unitate didaktikoan, moduluko irakasgaienganako ikaslearen motibazioa eta interesa sustatuko duten jarduerak hartuko dira kontuan, profesionaltasunaren eta lortuko duen gaitasunaren rola arteko identifikazioa bultzatuz, rol horretatik ondorioztatutako lanbide-nortasuna bereganatuz eta egingo duen lanaren eta eskatuko zaionaren ikuspegi orokorra eta osatua lortuz.

Zentzu horretan, interesgarria izan daiteke, azalpenean oinarritutako adibideez gain, irakasleak proposatutako suposizio-egoeren bidez, lanpostuetatik eta, era berean, lanbide-jarduera garrantzitsuenetatik eratorritako arauak, baloreak eta moduei buruzko eztabaidak sortzea, dagoen lanbide-nortasuna identifikatzeko. Horrekin batera, irakasleak jarduera esanguratsuetako bat egitea komenigarria izan daiteke: oinarritzko elaborazio baten exekuzioa... ikaslearengan interesa pizten saiatuz.

Laburtuz, hasierako unitate didaktiko honek praktikoa izan behar du eta guztion partaidetza bilatu behar du garatzen denean.

- Unitate didaktikoak osatuko dituzten ebaluaziorako eta irakaskuntza eta ikaskuntzarako jarduerak eta/edo egoerak zehazteko arau orokor gisa, unitate didaktikoak prozedurazko ardatza ezarri egituratzea gomendatzen dugu.

Honako garapen curricularrean, formulatuko diren unitate didaktikoetarako, prozedurazko ardatz egituratzailea proposatzen da; ardatz horrek irakaskuntza eta ikaskuntzako jarduerak programatzeko aukera eskainiko du edo, bestela, beste unitate didaktiko batzuk formulatzeko beharrezkoak izango diren antzeko beste batzuk zehazteko orduan orientatzaile izan daiteke.

- Orokorrean, formulatuko den unitate didaktiko bakoitzerako, komenigarria izango da helburu motibagarria izango duen aurkezpena egitea, era berean, ikasleen ikaskuntzaren kokapen esanguratsua egin ahal izateko.

Hau da, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran, modulurako ezarritako ikaskuntzen prozesu orokorrean bereganatu beharreko jakintza berrien kokapena adieraziko zaie ikasleei.

- Irakaslearen aldetik zentzuzkoa izango da azalpenean oinarritutako metodologiak onartzea. Hala ere, metodologia horien erabilera gehiegizkoa ez izatea gomendatzen dugu, ikasleen pasibotasuna saihesteko.

Egokia izango da irakasleak unitate didaktiko bakoitzaren hasieran ikaskuntza-jarduerak osatu-ko dituzten prozedurak edo eragiketak exekutatzeari, gero ikasleak egingo dituen orientabide edo eredu izan daitezen. Jardueren exekuzioan ikasleek izan beharko duten progresioak garapenean gero eta autonomia eta ekimen handiagoa eskatuko du eta konplexutasun-mailak ere gero eta handiagoa izan beharko du.

Irakasleak egingo dituen prozedura edo eredu orientatzaileak errealitateak ahal bezain hurbil egotea gomendatzen dugu, beharrezkoak diren abstrakzio-mailak kontu handiz kontrolatuz. Bestela esanda, prozedurazko eredu bat aurkezten denean gero ikasleek autonomiaz eta ekimenez garatzeko, "azalpenak" baztertu beharko dira eta, beraz, irakasleak exekutatu egingo du eta exekuzioan zehar beharrezko azalpenak eta kontzeptuak adieraziko ditu.

- Prozeduren euskarri gisa garatuko diren kontzeptuzko eta jarrerazko edukien ekarpena, orokorrean, bi unetan zati daiteke. Lehenengo momentuan, irakasleak, eredu edo adibidea egiteko beharko liratekeen edukien ekarpena egingo luke; bigarrenaren, egoera konplexuagotan, euskarri-lanak egiten dituzten eduki horien ekarpena ikasleek prozedurak egiterakoan sortutako beharrenean oinarrituz egingo litzateke.

Edukiak ez "diktatzea" eta dokumentu gisa ematea gomendatzen dugu; horrek denbora asko aurrezteko aukera emango digu, baina, hala ere, kasuren batean, egokia izan daiteke ikasleek "apunteak jasotzea".

Dena dela, lehenago ere adierazi duguna gogoratzuz, lehenengo unitate didaktikoak erabiltzea gomendatzen dugu, hau da, ikasleak poliki-poliki prozedurak eta eragiketak isolaturik exekutatzeko gaitzen dituztenak eta kontzeptuzko eta jarrerazko edukien eransketa azpimarratuko dutenak, bigarren zatian, konplexutasun eta ikasleen autonomia handiagoa eskatzen duten prozedurak edo elaborazioak daudenean, trebetasun teknikoetan gaitzeko ahalegina azpimarratu ahal izateko.

- Formulaturiko diren irakaskuntza eta ikaskuntzako jardueren prozedurazko garapenaren simulazioak baldintza errealean eta, arautegiari dagokionez, baldintza egokietan egin beharko dira, eragiketen, elaborazioen eta abarren garapeneko egoera eta produktu errealeak isla ditzaten.

Jarduerak biltzen dituzten "suposizio-egoerak", datuak eta informazioak ematerakoan eta, bereziki, egin beharreko oinarritzako elaborazioak eta plater errazak ezartzerakoan, ikastetxearen inguruneak eratorritakoak direla kontuan izan beharko da eta ingurune horretan ikasleen lane-eratzeko aukeren inguruneak ere kontuan hartuko dira.

Esparru honetako sukaldaritzako elaborazioen prozedurazko garapenak interes berezia du Euskal Autonomia Erkidegoan. Horien garapena oinarritzakoa da.

- Ikastetxeak dituen oinarritzako ekipoek eta instalazioek, oinarritzako dotazioen arabera, jardueren prozedurazko garapenerako egokiak izan beharko dute eta, edozein kasutan ere, garapen horietara egokitu beharko dira. Ekipoak erabiltzen direnean, ikasleek higie-nari eta osasunari buruzko eta martxan jartzeko arautegia betetzen dutela ziurtatu beharko da, hori oinarritzako gaitasuna baita.
- Jarduera didaktikoen garapenean, batez ere lehenengo zatian, espero ez diren emaitzak edo ikasleek egindako akatsak aprobetxatu behar dira irakaskuntza eta ikaskuntzako beste jarduera batzuk diseinatzeko. Hau da, ikasleek irakaskuntza eta ikaskuntzako jar-duerak biltzen dituzten prozeduretan edo eragiketetan egiten dituzten akatsak aprobetxatu behar dira, dedukzioarako erabiltzeko eta ikaskuntza berriak sortzeko. Horretaz gain, jarrerazko eduki garrantzitsuen trataera bultzatu behar da, hala nola talde-lanarena, ekimenarena, autokontrolarena, ideien errespetuarena eta abarrena.

- Azkenik, formulatuko den hainbat unitate didaktikotan heziketa–ziklo bereko beste lanbide–modulu batzuetan garatzen diren ezagupenak (edukiak) identifikatzea, koordinatzea eta, hala badagokio, indartzea eta osatzea beharrezkoa dela gogoratu behar dugu, horrela, honako lanbide–moduluan garatzen direnak modu egokian bereganatu ahal izateko.

EBALUAZIOA

Ibilbidearen zati bakoitzaren aurkezpeneko unitate didaktikoan burututako jarduerak taldearen ezaugarriak, interesak eta beharrak adierazten dituen eta programazioak izan ditzakeen egokitzapenak gidatzen dituen hasierako ebaluazioa burutzeko baliagarriak izan daitezke.

Ikasteko jardueren barne dauden kasu praktikoak ebatzea eta proiektuak burutzea ebaluatzeko tresna gisa ere erabil daiteke. Horrela, ikasleak, eta orokorrean taldeak, zenbateraino aurrera egin duen jakiteaz gain, gabeziak ere ikusiko dira eta neurri egokiak hartu ahal izango dira. Bi kasuetan ere, sortutako informazioa eta emaitzak kontuan hartu beharko dira ebaluazio–prozesuan. Argi dago zenbait unetan beharrezkoa izango dela banakako probak edo betiko azterketak ezartzea.

Moduluaren amaieran banakako probaren bat ezartzeko erabakia hartzen bada, honen ondorioz ikasleak sukaldaritzako teknikei buruzko eragiketen menperatzean erdietsi duen lorpen–maila ikusi beharko da, ingurugiroaren errespetua eta babesa kontuan hartuz.



4. UNITATE DIDAKTIKOA: SUKALDARITZA ETA INGURUGIROA

4.1. Berariazko helburuak

Unitate didaktiko hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Ingurugiroari loturiko funtsezko kontzeptuak eta oinarrizko terminologia, eta zehazki sukaldaritzako produkzio-prozesuari loturik dagoena, ezagutzea.
- Ingurugiroari loturiko parametro eta irizpide zuzenak aplikatzeak duen garrantziaz jabetzea, ingurugiroarekiko errespetua bultzatuz.
- Ingurugiroa lan-prozeduretan kontuan izan behar den beste aldagai bat bezala kontuan hartzea.
- Lan-arriskuak prebenitzea, eta larrialdien aurrean jarduteko prozedura zuzenak ezagutzea.

Helburu hauetan barne hartuta dauden gaitasunak eskuratzeko, jarduera desberdinetan oinarrituko gara, ondorengo atalean aipatzen diren edukietan oinarritzen direnak, eta beraiekin lan eginez ikasle-arentzat esanguratsuak bihurtzen direnak. Honela, eduki horiekin erlazionatutako jarduerak sekuentziatuko dira.

4.2. Edukiak

PROZEDURAZKOAK

- Sukaldaritzako produkzio-prozesuari aplikagarriak zaizkion ingurugiro-jarraibide zuzenak identifikatzea.
- Ingurugiroa ukitzen duten produkzio-prozesuko alderdiak identifikatzea, energia eta lehengaiak analizatuz eta neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Sukaldaritzan aplikatuko den hondakinak kudeatzeko oinarritzeko plan bat burutzea.
- Sukaldaritzan dauden arriskuak identifikatzea eta istribuen prebentziorako neurriak deduzitzea.
- Egon daitezkeen istripuei erantzun den emergentziatzeko plan bat burutzea.
- Sukaldaritzan erabilitako energi iturri desberdinen analisia eta loturik dituen arrisku posibleen eta ingurugiro-inplikazioen identifikazioa.
- Energia aurrezteko neurrien proposamena.

KONTZEPTUZKOAK

- Oinarrizko terminologia:
 - Garapen jasangarria.
 - Azpiproduktua.
 - Ingurugiro-politika.
 - Birziklatzea.
- Sukaldaritza eta ingurugiroa:
 - Produkzio-prozesuaren ingurugiro-inplikazioa: lehengaiak, energia, ingurugiro-jarraibide egokiak.
 - Hondakinen kudeaketa: Murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena sukaldaritzan.
- Laneko segurtasuna:
 - Produktu toxiko eta/edo arriskutsuak: etiketak.
 - Istribuen prebentzioa.
 - Larrialdiak.

JARRERAZKOAK

- Ingurugiroa errespetatzea.
- Lanean ordenaz eta zorrotz jardutea.
- Garatu beharreko lanean arduraz jokatzeko, honako hau egiteko konpromisoa hartuz:
 - Arduraz kontsumitzea.
 - Hondakinak berrerabili edo birziklatzea.
 - Energiaren kontsumoa optimizatzea.
 - Produktu toxiko eta/edo arriskutsuak behar bezala manipulatzeko.
 - Emergentziak prebenitzea.
- Ingurugiro-jarraibide egokiak aplikatzeko konpromisoa hartzea.

4.3. Jarduerak

ORDUAK (12)	IRAKATSI ETA IKASTEKO JARDUERAK	OHAR DIDAKTIKO- METODOLOGIKOAK	EBALUAZIO- JARDUERAK
1. zatia 2 or.	1. Sukaldaritzako produkzio-prozesuaren ingurugiro-problematikaren analisia. – Aurkezpena. – Produkzio-prozesua. – Oinarrizko terminologia.	Gardenkiak eta irakasleentzako materiala erabiltzea. Idea-zorrotada.	• Ingurugiroaren kontzeptuari eta ingurugiro-problematikari buruzko eztabaida egitea klasean. • Ondoko fitxa betetzea: “Sukaldaritzaren eta ingurugiroa” eta beroni buruz eztabaidatzea.
2 or.	2. Sukaldaritzaren erabilitako lehengaien analisia, ingurugiroari loturiko hobekuntzak proposatuz. – Lehengaien eta ingurugiroaren artean dagoen erlazioa.	Irakasleentzako materiala erabiltzea. Talde-lana.	• Ondorengo fitxa hauek bete, eztabaidatu eta klasean aztertzea: • Sukaldaritzaren erabiltzen diren lehengaiak. • Lehengaien problematika.
2 or.	3. Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: hondakinak eta jarduera gogaikarriak. – Hondakinen ingurugiro-problematika. – Murriztu, berrerabili eta birziklatzea.	Idea-zorrotada. Gardenkiak eta irakasleentzako materiala erabiltzea. Talde-lana. Eztabaida.	• Talde-lanak. • Klasean aztertzea. • Partehartze aktiboa klasean eta etxean. • Laneko jarrerak eta metodoak behatzea.
2. zatia 2 or.	4. Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: energia eta ura. Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemak. – Energi iturri desberdinen ingurugiro-inpaktua. – Uraren garrantzia. – Ingurugiroaren gaineko praktika egokien kodea. – Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemen oinarriko ezagupenak. – ISO 14000	Gardenkiak eta irakasleentzako materiala erabiltzea. Talde-lana.	• Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokien kodea lantzea.
2 or.	5. Lan-segurtasuna eta larrialdien aurreko jarduna. – Arriskuen identifikazioa. – Istripuen prebentzioa. – Larrialdien aurreko jarduna.	Gai horietan adituak diren pertsonen irakasteko gomendatzen diren jarduerak. Egindako lanen azalpena.	• Galdesorta betetzea eta beroni buruzko auto-ebaluazioa egitea. • Landutako materialaren laburpena.
2 or.	6. Lan osagarrien azalpena.	Ebaluaziorako galdesorta betetzea.	• Talde-lanen balorazioa. • Amaierako ebaluaziorako galdesorta.

BALIABIDE DIDAKTIKOAK

ERANTSIK:

Hegoaldeak bere produktuak saltzeko premia du.

Nekazaritza ekologikoa, biologikoa, organikoa.

Elikagai transgenikoak. Nahastea nagusi.

Substantzia arriskutsuen erabilera ostalaritzaren sektorean.

OHARRAK:

Unitate Didaktiko hau ikasturtearen hirugarren hiruhilean irakatsi beharko litzateke, lanbideari buruzko ezagupenak sendoagoak direnean.

Bere iraupena gutxi gora-behera 12 ordukoa da, gaia behar den sakontasunarekin aztertu eta aurreikusita dauden jarduerak guztiak garatu ahal izateko.

Gomendatzen dugu 2 orduko 6 eskolatan banatzea, lehenengo 4rak eskola bat astero, 5. eskola gai hori irakasten duten adituen arabera egongo da, eta beraz komenigarria izango litzateke behar adina aurrerapenerekin finkatzea, eta 6. eskola bi edo hiru aste geroago ematea komeniko litzateke, ikasleei proposatu diren lanak amaitzeko denbora emateko (lan horiek 1. jardueran adierazi dira).

Kontuan izan behar dugu erdi-mailako zikloko ikasleei zuzenduta daudela, etorkizuneko sukaldariei alegia, eta ez enpresa-zuzendariak eta goi-mailako pertsonal teknikoari ere, eta beraz lanbidearekin oro erlazionatuta dauden alderdiak jorratu behar dira, gai hauetaz jabe daitezkeen, alderdi orokorragoak alde batera utziko ez baditugu ere.



5. JARDUEREN DESKRIBAPENA

JARDUEREN ANTOLAMENDUA		
ZK.	IZENA	DENBORA
1	Sukaldaritzako produkzio-prozesuaren ingurugiro-problematikaren analisia.	2
2	Sukaldaritzan erabilitako lehengaien analisia, ingurugiroari loturiko hobekuntzak proposatuz.	2
3	Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: hondakinak eta jarduera gogaikarriak.	2
4	Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: energia eta ura. Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemak.	2
5	Lan-segurtasuna eta larrialdien aurreko jarduna.	2
6	Lan osagarrien azalpena.	2
		Guztira: 12 ordu

Jardueretako bakoitza honako hauek osatzen dituzte:

- Irakasleentzako materiala: garapen metodologikoa, gardenkiak, betetako galdesortak...
- Ikasleentzako materiala: txostenak, galdesortak, fitxak.
- Eranskinak (bidezkoztat jotzen denean).

Gardenki gisa adierazten den materiala orri osoko formatuarekin aurkezten da, irakasleek azetatoetan fotokopiak egin ahal izateko.

Eranskinetan material osagarria barne hartu da jarduera burutu ahal izateko, irakasleen irizpidearen arabera material hau ikasleei entregatuko zaie edo beste moduren batean erabiliko da.

Unitate didaktikoa garatzen duten jarduera-multzoan, produkzio-sektore desberdinei loturik dagoen ingurugiro-problematikaren barruan gaur egun erreferentzia gisa kontuan izan beharreko gai jakin batzuk barne hartzeko ahalegina egin da:

- Garapen jasagarria.
- ISO 14000 arauak.
- IKS (Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema).
- Ingurugiroaren gaineko Praktika Egokiak (IPE).
- Ingurugiroarekin erlazionatutako produkzio-sektorearen legeria.



1. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Sukaldaritzako produkzio-prozesuaren ingurugiro-problematikaren analisia	Gela balioanitz	2 ordu

LANERAKO HELBURUAK

- Ikasleari unitate didaktikoaren eduki, denboralizazio eta sekuentziazioaren berri ematea, bai eta garatu behar diren lanena ere.
- Ingurugiroa ukitzen duten sukaldaritzako produkzio-prozesuaren faktoreak identifikatzea, lanerako ohiko jarraibideak eta jarraibide zuzenak identifikatuz.
- Sukaldaritzako produkzio-prozesuarekin erlazionatuta dagoen ingurugiroari buruzko oinarriko terminologia ezagutzea.

BALIABIDEAK

- Gardenkia: sukaldaritzako produkzio-prozesua.
- Gardenkia: sukaldaritzako produkzio-prozesua eta ingurugiro-problematika.
- Fitxa: menu baten elaborazioa.
- Fitxa: sukaldaritzak eta ingurugiroa.
- Baliabide didaktikoen gida.
- Oinarriko terminoen hiztegia.

METODOLOGIA

Unitate didaktikoaren aurkezpena.

“Sukaldaritzak eta ingurugiroa” unitate didaktikoaren aurkezpen labur bat eginez hasiko gara, bertan ondorengo alderdi hauek azalduz:

- Garatuko diren gaiak, beren denboralizazioa eta sekuentziazioa azalduz.
- Burutu beharreko jarduerak.
- Unitate didaktikoaren ebaluazioa.

Ondoren ikasleek ingurugiroari buruz duten kontzeptua aztertuko da, eta horretarako ideia-zorrotada eta jarraian eztabaida egitea egokia izango litzateke, jendaurreko azalpena zuzentzen lagunduko baitute. Ingurugiroari loturiko ideia gauza global bat bezala azalduko da, eguneroko jarduerekin eta batez ere sukaldaritzako lanarekin erlazionatuta dagoena.

- Sukaldaritzako produkzio-prozesua.

Sukaldaritzako produkzio-prozesuari buruzko gardenkia erabiliz prozesu horren fase desberdinak eskematikoki azalduko dira.

- Sukaldaritza–prozesu baten ingurugiro–problematika.

Menu baten elaborazioak sor ditzakeen ingurugiro–problematika desberdinak detektatzea proposatuko zaio ikasleari. Menu hau, arrazoi praktikoak direla eta, bigarren platerera mugatuko da (legatza erromar erara). Hau suposizio–kasuan gaineratzen den fitxa erabiliz egingo da. Suposizio–kasu hori 4 pertsonako taldetan landuko da.

Fitxak bete ondoren irakasleak zuzenduko duen eztabaida bat egingo da, bertan ingurugiro–problematikari buruzko oinarritzko kontzeptuak azalduz. Horretarako jadanik beteta dagoen lehengo fitxa eta eztabaidaren amaieran ikasleei emango zaien Oinarritzko Terminoen Hiztegi bat eskura egingo da.

Jarduera hau amaitu ondoren sukaldaritzako produkzio–prozesuaren gardenkia erabiliko dugu berriro, kasu honetan produkzio–prozesuaren fase bakoitzeko ingurugiro–problematikarekin osatuta egingo dena.

Eztabaida amaitu ondoren, Ikastetxeko sukaldaritza–lantegian burutzen duten eta sektoreko edozein enpresatan burutzen denaren antzekoa den eguneroko lanean komentatu diren kontzeptuak eta ideiak aplikatzea eskatu zaie ikasleei. Horretarako ondorengo fitxa hau bete beharko dute: “Sukaldaritza eta ingurugiroa.”

Jarraian, produkzio–prozesuek ingurugiroaren gainean dituzten inplikazioei buruzko eztabaida gidatu bat egingo da, jadanik beteta dagoen fitxa berbera erabil daitekeelarik.

- Lan osagarrien burutzapena.

Jarduera amaitzen denean lan osagarri batzuen burutzapenerako jarraibideak azalduko dira. Lan hauek unitate didaktikoan zehar egingo dira eta 6. jardueran azalduko dira klasean. Lanak 4 pertsona taldetan egingo dira. Klase bakoitzeko azken 10 edo 15 minutuak erreserbatuko dira taldeak biltzeko eta zalantzak planteatzeko. Lanaren gainontzekoa klase–orduetatik kanpo egin beharko da.

Talde bakoitzak bi gai desberdin landuko ditu, bat talde guztientzako berdina izango da eta bestea desberdina talde bakoitzarentzat. Unitate didaktiko honetako azken klasean talde bakoitzak egin duen lana azaldu beharko du.

Gai komuna: “Menu bat aztertzea (irakasleak proposatuta), ingurugiroaren gaineko praktika egokien kode bat landuz”

Hona hemen beste gai posible batzuk:

- Nekazaritza biologikoa, bertako produktuak eta denboraldiko produktuak.
- Garapen jasangarria.
- Energia aurrezteko neurriak.
- Ingurugiroari buruzko informazioa bilatu eta interpretatzea (3. jardueran azaltzen da).
- Istripuen prebentzioa eta larrien aurrean jardutea.

Lan hauek egiteko eranskineko artikulua edo antzekoak erabil daitezke. Gainera lanekin material grafikoak ekar daitezke, inpaktu handiagoa izan dezaten eta ikasgelan ipini ahal izan daitezen.

EBALUAZIOA


JARDUERAK

- Ingurugiro–problematikari buruzko gaia klasean aztertzea.
- Proposatutako fitxen ebazpena.
- Lanbidearen inpaktuei buruzko eztabaida.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Eztabaidarekiko interesa eta bertan parte hartzea.

SUKALDARITZAKO PRODUKZIO-PROZESUA



FITXA: MENU BATEN ELABORAZIOA


Legatza erromar erara

PRODUKZIO- PROZESUA	LEHENGAIK	ENERGI ITURRIAK	INGURUGIRO- PROBLEMATIKA
Eskaintza gastrono- mikoaren diseinua.			• Garapen jasagarria ez. • Ez muriztu ez eta berrerabili ere.
Lehengaiak eskuratu eta biltegiratzea.	Legatza. Arrautzak. Irina. Gatza.		• Ez kontsumo jasagarria. • Hondarrak. • Hondakinak.
Lehengaien aurreelaborazioa.	Ura.	Elektrizitatea.	• Kontsumoa, uren poluzioa. • Hondarrak.
Janari-elaborazioa.	Olioia.	Gasa eta/edo elektrizitatea.	• Hondakinak. • Energiaren kontsumoa. • Lan-istripuak.
Jaso eta garbitzea.	Ura. Garbitzeko pro- duktuak.	Gasa edo elektrizitatea.	• Hondarrak. • Hondakinak. • Uraren kontsumoa eta poluzioa.

SUKALDARITZAKO PRODUKZIO-PROZESUA ETA INGURUGIRO-PROBLEMATIKA

SUKALDARITZAKO PRODUKZIO-PROZESUA

INGURUGIRO-PROBLEMATIKA



PRODUKZIO- PROZESUA	INGURUGIRO- PROBLEMATIKA	OHIKO JARRAIBIDEAK NOLA EGITEN DUGUN	JARRAIBIDE ZUZENAK NOLA EGIN BEHARKO GENUKEEN
Eskaintza gastronomikoa disei- natzea.	Garapen jasangarria ez.		Generoak berriz erabiltzea. Denboraldiko, bertako, nekazari- tza biologikoko eta merkataritza justuko produktuak erabiltzea.
Lehengaiak erosi eta biltegira- tzea.	Kontsumo jasangarria ez. Lehengaien galera. Ontziak ez birziklatzea.		Generoak berriz erabiltzea. Biltegiaren kudeaketa egokia. Ontziak birziklatzea.
Lehengaien aurreelaborazioa.	Uraren kontsumoa eta poluzioa. Hondarrak.		Uraren kontsumoa murriztea. Hondarrak berriz erabiltzea (azpi- produktuak).
Janarien elaborazioa.	Energiaren kontsumoa. Hondakinak. Lan-istripuak.		Energiaren kontsumoa murriztea. Olioak, eta abar birziklatzea. Istripu-prebentzioa. Larrialdien aurrean nola jardun behar den jakitea.
Jasotzea eta biltzea.	Hondarrak. Hondakinak. Uraren poluzioa eta kontsumoa. Istripuak.		Generoak berriz erabiltzea (azpi- produktuak). Kontserbazio egokia. Uraren kontsumoa murriztea. Produktu toxikoekin aurreneurriak hartzea.

FITXA: SUKALDARITZA ETA INGURUGIROA

a

1. jarduera



IZENBURUA Sukaldaritzako produkzio-prozesuaren ingurugiro-problematikaren analisia	KOKAPENA Gela balioanitza	KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu
--	-------------------------------------	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Unitate didaktikoaren eduki, denboralizazio eta sekuentziazioa ezagutzea, bai eta garatu behar diren lanak ere.
- ☞ Ingurugiroa ukitzen duten sukaldaritzako produkzio-prozesuaren faktoreak identifikatzea, lanerako ohiko jarraibideak eta jarraibide zuzenak identifikatuz.
- ☞ Sukaldaritzako produkzio-prozesuarekin erlazionatuta dagoen ingurugiroari buruzko oinarriko terminologia ezagutzea.

GARAPENA

Jarduera ingurugiroaren kontzeptuari buruzko ideia-zorrotada batekin hasiko dugu, eta ondoren klasean aztertuko dugu.

Ondoren sukaldaritzako produkzio-prozesua azalduko dugu eta gero eguneroko menua aztertuko dugu, bere elaborazioan sortzen diren ingurugiro-problematikak detektatuz.

Era berean ingurugiroari buruzko oinarriko terminologia eta sukaldaritzako produkzio-prozesuaren fase bakoitzak ingurugiroaren gainean duen eragina azalduko da.

Azkenik, talde-lanak burutu ahal izateko jarraibideak zehaztuko dira.

PROPOSATZEN DEN JARDUERA: Amaiur jatetxeak ondoren adierazten den menua egiteko burutu behar dituen produkzio-prozesu desberdinek sor dezaketen ingurugiro-problematika idatzi fitxa honetan:

LEHEN PLATERA: Azalore gratinatua

BIGARREN PLATERA: Legatza erromar erara

FITXA: MENU BATEN ELABORAZIOA

PRODUKZIO- PROZESUA	LEHENGAIK	ENERGI ITURRIK	INGURUGIRO- PROBLEMATIKA

Jarraian sukaldaritzako produkzio-prozesuaren fase bakoitza identifikatu behar duzu:

- a) Izan dezakeen ingurugiro-problematika,
- b) lanak burutzeko ohiko modua,
- c) ahalik eta ingurugiro-inpakturik txikiena lortzeko nola egin beharko genituzkeen.

FITXA: SUKALDARITZA ETA INGURUGIROA

PRODUKZIO- PROZESUA	INGURUGIRO- PROBLEMATIKA	OHIKO JARRAIBIDEAK NOLA EGITEN DUGUN	JARRAIBIDE ZUZENAK NOLA EGIN BEHARKO GENUKEEN
Eskaintza gastronomikoa diseinatzea.			
Lehengaiak erosi eta biltegitratzea.			
Lehengaien aurreelaborazioa.			
Janarien elaborazioa.			
Jasotzea eta biltzea.			



OINARRIZKO TERMINOEN HIZTEGIA

Isurketa-kanona. Emakida administratiboak ubide jakin batean amaitzen den produkzio-prozesu baten emaitzazko ur-kantitatearen arabera zergapetzen duen aldizkako diru-prestazioa.

Garapen jasangarria. Egungo beharrianak etorkizuneko belaunaldien beharrianak asetzeko ahalmena kolokan jarri gabe asetzen dituen garapen-eredua.

Sukaldaritzarekin erlazionatuta dauden garapen jasangarriaren datu interesgarri batzuk ondorengo hauek izan daitezke:

- Munduan dauden 13 arrantza-toki handienetatik 11 ia agortuta daude.
- Egoera hau kontuan izanik Kanadak espezie askoren arrantza galerazi du.
- Bizkaiko itsasoan arrain handia kasik agortuta daude.

Ekoauditoretza. Ingurugiroaren egoera eta enpresa baten funtzionamenduak ingurugiroaren gainean duen eragina aztertu eta adieraztea.

Ekoetiketa. Ingurugiroa errespetatzen duten produktuei ematen zaien ikurra, produkzio-prozesuan zehar eta bere erabilpenean poluzioaren prebentzioari, murrizketari eta ahal den neurrian ezabaketari loturiko irizpideetan oinarrituz.

Energia alternatiboak. Energia konbentzionalak ordezkatzeko erabiltzen diren energiaei ematen zaie izen hau. Energia berriztagarri gisa ezagutzen dira gaur egun. Beren iturriak agortezinak dira, naturan modu errepikakorrean agertzen direlako.

Ingurugiroaren kudeaketa. Ingurugiro-politika, bere helburuak eta erantzukizunak definitzen dituen eta ingurugiro-helburuen plangintzaren, emaitzen neurketaren eta ingurugiro-ondorioen kontrolaren bitartez jarduera horiek ezartzeko balio duen kudeaketa-jardueren multzoa.



2. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Sukaldaritzan erabilitako lehengaien analisia, ingurugiro-hobekuntzak proposatuz</i>	<i>Gela balioanitza</i>	<i>2 ordu</i>

HELBURU OPERATIBOAK

- Lehengaien eta ingurugiroaren arteko erlazioa ezagutzea, neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Ikaslea denboraldiko, bertako, nekazaritza biologikoko eta antzeko lehengaiak erabiltzearen garrantziaz kontzientziaztea.

BALIABIDEAK

- ♦ Fitxa: "Lehengaien problematika".
- ♦ Ingurugiroari eta lehengaiari buruzko oinarritzko terminoen hiztegia.
- ♦ Baliabide didaktikoen gida.
- ♦ Eranskinak:
 - ♦ Hegoaldeak bere produktuak saltzeko premia du.
 - ♦ Nekazaritza ekologikoa, biologikoa, organikoa.
 - ♦ Elikagai transgenikoak. Nahastea nagusi.
 - ♦ Substantzia arriskutsuen erabilera ostalaritzaren sektorean.

METODOLOGIA

Ikasleei "sukaldaritzan erabilitako lehengaiak" gaiarekin erlazionatutako ingurugiro-kontzeptuei buruzko galdesorta bat emanez has daiteke, beraiek bete dezaten. Galdesorta bete ondoren, kontzeptu hauen esanahia azalduko da eta aldez aurreko ezagupenak ebaluatuko dira.

Ondoren eztabaida bat egitea proposatuko da, bertan ikasleek galdesortako kontzeptuak adieraz ditzaten, kontzeptu bakoitza modu laburrean azalduz. Azkenean lehengaiari buruzko oinarritzko terminoen hiztegia erabiliko da.

Jarraian, sektoreko enpresa baten lehengaien kudeaketan hobekuntza-proposamenak lortzeko ahalegina egingo da, honako fitxa hau betez: "Lehengaien problematika", eta fitxa hau bete ondoren gelaren aurrean azalduko da. (Ebatzitako fitxa berdina gaineratzen da).

Jarduera hauen osagarri gisa eranskinetako materialak erabili ahal izango dira (nekazaritza biologikoa, merkataritza justua edo elikagai transgenikoei buruzko artikulak). Artikulu hauek gelan irakurri edo eztabaidatu ahal izango dira, edo bestela 1. jardueran proposatzen diren eta 6. jardueran gelaren aurrean azalduko diren lan osagarrien buruzapenerako erabili ahal izango dira.

1. jardueran bezala, azken 10 edo 15 minutuak taldeka egin beharreko lanari dedikatuko zaizkio. Ikasleak taldeka bilduko dira eta esleitutako lanak garatzen joango dira.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Proposatutako bi fitxak betetzea:
 - Sukaldaritzan erabilitako lehengaiak.
 - Lehengaien problematika.
- Eztabaidak eta fitxen ebazpena gela osoaren aurrean azaltzea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Ikasleen jarrera positiboa eta interesa.
- Proposatutako jardueretan aktiboki parte hartzea.

FITXA: LEHENGAIEN PROBLEMATIKA

PLATERA	LEHENGAIAK	JATORRIA	ONTZIA	DENBORALDIA	PROBLEMATIKA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Legatza erromar erara.	Legatza.	Bizkaiko itsasoa.	Poliespana	Ekaina.	Arrantza-tokien	Bertako eta denboraldiko produktuen kontsumoa.
		Hego-amerika.		Abuztutik martxora.	agortzea.	
		Hego-afrika.				
	Ura.				Hondakin-urak.	Kontsumoa murriztea.
	Irina.		Paperezko zorroa.		Hondakinak.	Birziklatzea.
	Arrautza.		Kartoia.		Hondakinak.	Birziklatzea. Bertako produktuen kontsumoa.
	Gatza.		Plastikoa.			Birziklatzea.
	Olio.		Plastikoa.		Hondakinak.	Berrerabiltzea. Birziklatzea.

a

2. jarduera



IZENBURUA Sukaldaritzan erabilitako lehengaien analisia, ingurugiro-hobekuntzak proposatuz	 KOKAPENA Gela balioanitza	KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu 
---	--	---

HELBURU OPERATIBOAK

- Lehengaien eta ingurugiroaren arteko erlazioa ezagutzea, neurri zuzentzaileak proposatuz.
- Ikaslea denboraldiko, bertako, nekazaritza biologikoko eta antzeko lehengaiak erabiltzearen garrantziaz kontzientziaztea.

GARAPENA

Lehengaiekin erlazionatutako ingurugiro-kontzeptuei buruzko galdesorta bat betez hasiko zarete, eta ondoren kontzeptu hauei buruzko eztabaida egingo da.

Jarraian, fitxa bat betez, lehengaien kudeaketa hobetzeko proposamenak egingo ditugu. Hori egi-teko, gai hauei buruzko prentsa-artikuluekin dokumenta zaitezket.

Klasearen bukaeran, lan osagarrien burutzapenarekin jarraitzeko denbora egongo da.

GALDESORTA: SUKALDARITZAN ERABILTZEN DIREN LEHENGAIK

Zer da zuretzat:

Lehengaiak:

.....

.....

.....

.....

Hondakina:

.....

.....

.....

Azpiproduktua :

.....

.....

.....

Denboraldiko produktuak:

.....

.....

.....

Bertako produktuak:

.....

.....

.....

Nekazaritza biologikoa:

.....

.....

.....

Merkataritza justua:

.....

.....

.....

Kontsumo jasagarria:

.....

.....

.....

Gaineratzen den plateraren elaborazioan esku hartzen duten lehengaiak adieraz itzazu. Lehengai horien jatorriak, denboraldiak eta ontziak zehaztu, bai eta sor ditzaketen ingurugiro-problematikak eta hobekuntza-proposamenak ere.

Denbora: 10 minutu

FITXA: LEHENGAIEN PROBLEMATIKA

PLATERA	LEHENGAIK	JATORRIA	ONTZIA	TEMPORADA	PROBLEMATIKA	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Legatza erromar erara.						



Miscelánea
Saski-nahaski

Comercio Justo

El Sur necesita vender sus productos

Herrialde pobreenen benetako garapena lortzen laguntzen duten produktu hauek erosteak arduratsu eta solidario egiten dugure kontsumoa



Artesanías del Amazonas, juguetes educativos de Jaipur (India), madera tallada de Madagascar y Camerún, figuras de saponita de Kenia, textiles multicolores de Panajachel (Guatemala), Perú y Tailandia o café, chocolate, miel, palmito, ron, nueces o muesli provenientes de África, América del Sur y Asia, conforman el arco iris de artículos que podemos comprar hoy procedentes del Tercer Mundo, bajo el paraguas alternativo del Comercio Justo. La iniciativa, solidaria con los problemas que sufren los países pobres para comercializar sus productos en condiciones que permitan su desarrollo económico, nació en los sesenta en Holanda cuando la organización católica SOS Wereldhandel comenzó a importar artesanías de estos países vendiéndolas posteriormente por catálogo y en las iglesias. La situación ha evolucionado mucho en tres décadas: actualmente, hay más de 100 organizaciones importadoras en Europa que mueven cada año productos por valor de unos 40.000 millones de pesetas. El comercio justo es una forma sencilla y eficaz de apoyar la

autonomía económica y el desarrollo de los países menos ricos. Y, también, de reivindicar un crecimiento más equitativo de los niveles de bienestar. Pero no cualquier transacción comercial bienintencionada con los países menos desarrollados puede aceptarse como comercio justo. Las condiciones son exigentes: los precios de compra de los productos y de su venta se han de basar en el coste de producción; los artículos -que han de ser de calidad- se deben elaborar en condiciones laborales dignas para los trabajadores y respetuosas con el medio ambiente. Y los beneficios de este comercio lo deben destinar las organizaciones europeas a mejoras sociales. Este comercio permite atender las necesidades básicas de la población de los países de origen de los productos. Se les ayuda a que sean capaces de desarrollarse por sí mismos.

Comercio, no ayuda. La Conferencia de Naciones Unidas sobre Comercio y Desarrollo ha calculado que la supresión de las medidas arancelarias en los sectores textil y de la confección aumentaría el empleo entre un 20% y un 45% en los países en desarrollo. Por tanto "Trade not aid" (comercio, no ayuda) es, desde hace muchos años el lema de estos países. Cualquier crisis del mercado de materias primas influye en el Tercer Mundo. La economía de estos países depende en un 50% de la exportación de sus materias primas. Hay al-

gunos, como los del África subsahariana, que dependen de un sólo producto (café o cacao). Los países del Tercer Mundo se endeudan para adquirir lo que son incapaces de producir, y para paliar este déficit aumentan la producción de sus materias primas, con lo que los precios de estas descienden en el mercado, que sólo busca beneficios. Además, la demanda de los países del Norte también ha variado. Así, la fibra óptica ha sustituido al cobre, los edulcorantes artificiales se imponen al azúcar e incluso algo tan progresista como el reciclaje reduce la demanda de materias primas del Sur.

Diversificar la producción. Los mercados están en manos de grandes empresas transnacionales. El 70% del comercio mundial de materias primas y el control del 80% de las tierras de producción lo dirigen estas compañías. La mejor solución para los campesinos locales es diversificar su producción y no depender de un sólo artículo. Porque en caso de descensos de precios o de mala cosecha, su paupérrima economía no se verá tan afectada. Los campesinos que colaboran con organizaciones de comercio justo gozan de mejor posición económica que los demás, e invierten en otros negocios y áreas. El Sur se ha convertido también en exportador de materias manufacturadas (textil, zapatos, juguetes). Como consecuencia de ello, los países industrializados han adoptado medidas proteccionistas, perjudiciales para los países pobres. Las organizaciones de comercio justo desarrollan nuevos productos y técnicas para que puedan venderse en los países del Norte. También informan de los gustos y tendencias de los consumidores de los países ricos, para ofrecer productos con posibilidades comerciales.

Tiendas solidarias. Están especializadas en el comercio justo, y se pueden encontrar en nuestras grandes ciudades. A través de la venta, la concienciación social y la acción política, las organizaciones intentan que el comercio mundial sea más justo. En Europa, más 3.000 tiendas y 50.000 voluntarios se dedican a esta tarea y facturan unos 38.000 millones de pesetas cada año. En España, el fenómeno es todavía incipiente respecto a Alemania, Países Bajos o Reino Unido, aunque se registró un crecimiento en los últimos años. En 1986, se im-



En nuestras ciudades
hay unas 40 tiendas
de comercio justo,
que facturaron el año
pasado 700 millones

Comercio Justo y Consumidor

- Los productos de comercio justo son de un 10% a un 15% más caros que sus equivalentes convencionales. En Europa occidental, entre un 10 y 20% de las familias están dispuestas a pagar un poco más por estos productos.
- No se adquieren con más frecuencia porque son difíciles de encontrar. La distribución masiva es el principal obstáculo para la expansión del comercio justo. En casi todas las grandes ciudades pueden encontrarse tiendas de comercio justo. Algunas cadenas comerciales han comenzado a incluir estos productos en sus establecimientos.
- Café, cacao-chocolate, y artesanía son productos "estrella" del comercio justo.
- Comprarlos significa defender un consumo ecológico, solidario y responsable.
- Las etiquetas de las marcas de garantía - Trans Fair, Max Havelaar y Fair Trade

planta la primera tienda solidaria en San Sebastián (Emaus-Erein) y en la actualidad hay 22 organizaciones (40 tiendas) de todo el país constituyen la Coordinadora de Organizaciones de Comercio Justo. Las españolas trabajan con 50 grupos productores y alcanzaron unas ventas de 700 millones de pesetas en 1997 y atendieron a más de 150.000 clientes. Las marcas bajo las que se comercializan los productos son: Trans Fair, Max Havelaar y Fair Trade Mark.

Las organizaciones compran los productos reduciendo al mínimo los intermediarios. El precio de compra va en función de los costes de las materias primas, la producción y del tiempo y de la energía invertidos. Los productores tienen derecho a la prefianciación y las relaciones comerciales son a largo plazo. Las ONG de comercio justo comprueban si es realmente una organización de productores, para evitar intermediarios. Posteriormente, se estudia si existe un mercado potencial de esos productos. Por último, se comprueba si los productores trabajan con un sistema ecológico y sostenible. En caso de empresas y plantaciones, se verifica que el sueldo alcance para mantener a la familia y que las condiciones de trabajo no perjudiquen la salud del productor. Actualmente, 800.000 familias se dedican en el mundo a producir materias primas para el comercio justo.

Mark- informan de las condiciones en que se elaboró cada producto.

- Las organizaciones de comercio justo hacen mucho más que vender los productos: controlan que la producción respete la dignidad de los trabajadores y al medio ambiente. Y que el dinero ganado por los productores locales sea suficiente para proporcionarles un cierto nivel de vida. También orientan y ayudan a estos países para que se elaboren productos que sean atractivos para los países desarrollados.





2. jardueraren eranskina



4-SUSTRAI

Nº 38 - 3.º trimestre 1995

La Comisión Europea pretende potenciar este tipo de explotaciones

AGRICULTURA ECOLOGICA, BIOLOGICA U ORGANICA

Azken urteotan merkatu berri bat sortu da modu "organiko"an, "ekologiko"an edo "biologiko"an sortutako nekazal produktu eta elikagaietarako, hau da, produktu kimiko sintetikoak erabili gabe sortutakoetarako. Nekazaritza mota hori babesteko asmotan, Bruselasen EEko Kontseiluaren 2092/91 Araudia onartu zen bere garaian. Araudi horrek produktu horien produkzioa, salmenta, etiketa jartzea eta ikuskaritzarako bete beharrekoak ezartzen ditu.

En estos últimos años ha emergido un nuevo mercado para los productos agrícolas y alimentos producidos de manera "orgánica", "ecológica" o "biológica" (términos que utilizaremos indistintamente a continuación), y según la Comisión Europea los consumidores demandan este tipo de producto cada vez más aunque es una demanda relativamente pequeña (Tabla 1). El precio de mercado de estos productos es mayor debido a que el sistema de producción no permite la explotación intensiva de la tierra y los rendimientos en general, son menores (Tabla 2).

En respuesta al pequeño grupo de población que demanda este tipo de productos, han aparecido en el mercado varios alimentos y productos agrícolas que alegan o indican en sus etiquetas el hecho de haber sido producidos "orgánicamente" o sin usar productos químicos sintéticos. Algunos Estados Miembros de la Unión Europea han adoptado normas sobre la inspección de los productores. Para proteger, la agricultura "orgánica", velar por el cumplimiento de las leyes de la competencia, asegurar la transparencia y por tanto asegurar la credibilidad de estos productos a los ojos de los consumidores, en Bruselas ya se ha escrito y aprobado el Reglamento del Consejo de la CE nº 2092/91 publicado en el DOCE (198/91). Este Reglamento establece los requerimientos para la producción, venta, etiquetado e inspección de estos productos.



INAKI CERRALIERIA

La Comisión pretende, además, potenciar este tipo de explotaciones ya que son actividades en línea con las intenciones de la reforma de la Política Agrícola Común (PAC). Se contribuye a un mejor equilibrio entre la oferta y demanda debido a una producción menos cuantitativa y de una supuesta mayor calidad. Es, además, una práctica agrícola más respetuosa con el medio ambiente. Pero al igual que la PAC, desgraciadamente este sistema de producción no se adapta muy bien al escenario futuro que se plantea como consecuencia de la próxima apertura progresiva de fronteras (acuerdos GATT) y la dura competencia de los bajos precios de los productos que se ofertarán desde otros países. Tampoco se adapta a la crisis que vivimos donde el éxito de los productos estará en el precio (Tabla 3).

Principios de la producción orgánica a nivel de granja o plantación

La normativa Europea dicta una serie de requisitos a cumplir por los productos

que quieran ser cubiertos por la calificación de ecológicos u orgánicos:

1. Haber sido producidos mediante sistemas ecológicos que a continuación se delimitarán, y la totalidad de sus ingredientes hayan sido así producidos.
2. Los requisitos deberán ser cumplidos en las parcelas concernientes durante un período de conversión de al menos 2 años (3 años para cultivos perennes excepto pradera) antes de que la cosecha pueda ser considerada como ecológica. El cuerpo de inspección podrá, con la aprobación de la autoridad competente, extender o reducir este período de tiempo según el uso histórico de la parcela.
3. La fertilidad y actividad biológica de la parcela deberá ser mantenida o incrementada en caso necesario solamente mediante:
 - cultivo de leguminosas, abonos verdes o plantas de enraizamiento profundo con un programa de rotación multianual adecuado.

CUADRO A
Productos para el uso en fertilización y acondicionamiento de la tierra

• Estiércol de corral o de pollería.	• Roca de fosfato natural.
• Lodos u orina.	• Roca de fosfato aluminico calcinada.
• Paja.	• Escoria básica.
• Turba.	• Potasa de roca.
• Compostaje de substratos de hongos y vermicultura.	• * Sulfato de potasa.
• Compostaje de desechos orgánicos del hogar.	• Piedra pomez.
• Compostaje de residuos de plantas.	• Yeso.
• Productos animales procesados de mataderos e industrias del pescado.	• Roca de magnesio.
• Productos secundarios de la industria agro-alimentaria y textil.	• Roca calcárea de magnesio.
• Algas y productos de algas.	• Sal de "Epson" (SO ₄ Mg).
• Serrín, corteza y desechos de madera.	• "Gypsum" (SO ₄ Ca).
• Ceniza de madera.	• * Elementos traza (Bo, Cu, Fe, Mn, Mo, Zu).
	• * Azufre.
	• Arcilla (bentonita, perlita).
	• Harina de piedra.

(*) Necesita ser reconocido por organismos de control

Fuente: Legislación Europea.

- incorporación al suelo de material orgánico de compostaje o no, procedente de empresas productoras según los principios del reglamento (aunque el reglamento para explotaciones animales ecológicas aún está siendo elaborado, de momento es suficiente con que se trate de explotaciones que se acojan a normas nacionales).

- también podrán ser utilizados otros fertilizantes orgánicos o minerales (sólo aquellos listados en el cuadro A) en caso de que las dos primeras prácticas no sean suficientes para el acondicionamiento del suelo y para la nutrición del cultivo.

- para la activación del compostaje estará permitido el uso de las preparaciones biodinámicas, de microorganismos o a base de plantas, que sean necesarias.

3. Las plagas, enfermedades y malas hierbas podrán ser controladas mediante las siguientes medidas:

- la elección de las especies y variedades apropiadas para el cultivo.

- un programa de rotación adecuado.

- procedimientos de cultivo mecánico.

- protección frente a los enemigos naturales y plagas mediante instalaciones y acciones apropiadas tales como setos, lugares de abrigo, liberación de predadores...

- quema de malas hierbas.

- uso de sustancias listadas en el cuadro B.

4. Ningún producto que haya sido modificado genéticamente entrará en esta categoría (pudiendo ser éstas en mi opi-

Aurrebilketa hiritarrei dagokien prozesua da. Ingurugiroaren gaineko praktika egoki bat zera izango da; udalak zabor-poltsak edukiontzietan uzteko adierazten duen ordutegia zehatz-mehatz betetzea; poltsa iragazkaitzak erabili beharko dira, hezetasunaren ondorioz kalea ez zikintzeko. Udalak beira, pilak, plastikoa, metalezko latak, papera eta kartoia biltzeko gaitako sistema bat baldin badu, hondakin horiek edukiontzi egokietan bota beharko dira.

Hondakin likidoak, zabor-poltsan biltzea ezinezkoa denez gero, arraska, komun edo hustubidetik isuri ohi dira. Kontuan izan behar da hauetariko asko arriskutsuak (lisibak, disolbatzaileak...) edo tratatzeko zailak direla, adibidez olioak, eta besterik gabe hustubidean isurtzea ez litzateke egokia izango.

BIRZIKLATZEA

Birziklatzeak, lehengaiak aurrezteaz gain, ezabatu behar ditugun hondakinen kopurua murriztea lortzen du, era honetan ingurugiroaren poluzioa murriztuz.

Birzikla daitezkeen material desberdinak honako hauek dira: plastikoak, papera eta kartoia, beira, altzariak eta etxetresna elektrikoak, hondakin organikoak, ehunak, aluminioa, kobrea, burdina eta merkuriorik gabeko pila normalak.

Birziklatutako 10 Tm berira fabrikatuz, 1 Tm petrolio aurrezten da. Askoz gehiago aurreztuko litzateke botilak garbitu eta esterilizatzearekin nahikoa izango balitz berriz erabiltzeko, hauek urtu beharrik gabe. Horregatik beirazko ontzi itzulgarriak eskatuz lagun dezakegu.

Metalak, hala nola burdina, aluminioa, kobrea eta abar, oso beharrezkoak dira egungo gizartean. Erabili eta gero bota ordeztu berriz erabiltzeko aukera izanez gero, beirarekin egiten den bezala, energia aurreztuko litzake eta metalak ateratzen direneko meatzeak ez lirateke agortuko.

Lan egiten duzuen edo bizi zareten udalerrian laten gaikako bilketa baldin badago, latak beren ontzietan utziz lagundu, eta ontzi itzulgarriak edo birziklagarriak eskatu.

Birziklatutako paper tona bakoitzak 4.000 kw elektrizitate eta 200 m³ zur aurrezten ditu, eta 17 zuhaitz moztea saihesten du. Paperaren fabrikazio-prozesuan substantzia zuritzaileak erabiltzen dira (kloroa eta deribatuak), eta hauek ura asko poluitzen dute.

Hobe da sukaldeko zapiak erabiltzea garbiketarako paperezko erroililoak erabiltzea baino.

PLASTIKOAK

Lau plastiko-mota daude:

1. Poliolefinak: mota honekin jogurtontziak, esne-botilak eta abar fabrikatzen dira.
2. PVC (polivinilo kloruroa): leihoak, zartaginak, hodiak, ur-botilak, olio-botilak, eta abar.
3. PET: freskagarrien botilatxoak material honekin eginda daude.
4. Poliestireno hedatua: kortxo zuria ere deritzo (poliespan). Oso erabilia da, supermerkatuetan haragia, fruta eta abar gordetzeko erabiltzen diren bandeja zuriak dira.

Plastikorik gehienak iraupen luzekoak dira. 10 urtetik gora behar dute desegiteko, eta poliestirenoa (bandeja zuriak) ez da inoiz desegiten. Baina produktu hauek desegiteko erre egiten badira, okerrago da. Kontrolatu gabe erretzen badira, atmosferara doazen oso ke poluitzaileak sortzen dira.

Plastikoa birzikla daiteke, baina ez edozein plastiko-mota, batzuk erregai bezala bakarrik erabili daitezke. Birziklatze-prozesuaren ondoren lortzen den plastikoarekin hiri-altzariak egin daitezke (espaloï-zintarriak, kolunpioak, eta abar).

Tm 1 plastiko birziklatuz Tm ½ petrolio aurrezten da.

Hornitzaileei bilduki gutxiago eskatuz lagun dezakegu.

MATERIA ORGANIKOA

Materia organikoa deskonposatzen duten organismoek esker ongarri natural bat lortzen da, compost izenekoa.

MURRIZTU-BERRERABILI-BIRZIKLATU (MBB)

Hondakinek sortzen dituzten arazoentzat (poluzioa eta baliabide-galera) soluzio bat bilatu beharra dago. Soluzio hori existitzen da, eta honako hau da.

Murriztu → Berrerabili → Birziklatu



MURRIZTU

Arazo garrantzitsuenetako bat sortzen diren hondakinen bolumena da; beraz, bolumen hori murriztu egin behar da, hau da, zuzenean zaborretara joango diren bilduki asko dituzten produktuak ez erostea.

Ondoko eran ere hondakinak murrizten dira:

- Behin erabili eta botatzekoak ez diren produktuak erabiliz.
- Paper–errolioen ordeztuak sukaldetako zapiak erabiliz.

BERRERABILI

Gauzak behin baino gehiagotan, hau da, benetan erabilgarriak ez diren bitartean erabiltzea.

BIRZIKLATU

Gure sektoretik eta gure etxeetatik ere birzikla dezakegu, ontzi birziklagarriak dituzten produktuak erosiz. MBB letren funtsezko pieza hiritarrak gara.

OSTALARITZARAKO AHOLKU PRAKTIKOAK

- Paper birziklatuaren erabilera bultzatzea.
- Ontziratu gabeko edo bilduki gutxiko produktuak erostea.
- Fosforik gabeko detergenteak erostea, gure ibai eta aintziretarako ondorio kaltegarriak sortzen dituztelako.
- Erabilita dagoen sukaldetako olioak hustubideetan ez isurtzea, oso poluitzailea delako (litro 1 oliok 100.000 litro ur polui ditzake). Jar zaitez harremanetan hondakin–kudeatzaile batekin edo olio birziklatzen duen enpresa batekin. Zaborrarekin batera ezaba daiteke.
- Ekipoen garbiketan saia zaitez beti papera alferrik ez gastatzen.
- Soberako generoa ontzi egokietan gorde, aluminiozko papera edo plastikoak ahalik eta gutxien erabiliz.



4. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: energia eta ura. Ingurugiroa kudeatzeko sistemak</i>	<i>Gela balioanitza</i>	<i>2 ordu</i>

HELBURU OPERATIBOAK

- Energi mota desberdinen erabilpen edo produkzioak ingurugiroan sortzen duen inpaktua aztertzea.
- Bizitzeko uraren premiaz jabetzea.
- Janari–zerbitzua eskaintzen duten enpresetan energiaren eta uraren erabilera egokia egiteko neurriak proposatzea.
- Jarduerak ingurugiroan sortzen duen inpaktua murriztuko duten ingurugiroaren gaineko praktika egokien kode bat lantzea.
- Ingurugiroa kudeatzeko sistemak eta kalitate–sistemak funtsean ezagutzea.

BALIABIDEAK

- Gardenkia: “Errespetu gutxirekin egindako praktiken ingurugiro–eragina” (3. jarduera).
- Fitxa: “Ingurugiroaren gaineko praktika egokien kontrola”
- Arbela eta post–it.
- Txostena: “Energia, ura, eta ingurugiroa kudeatzeko sistemak”
- Glosategia.

METODOLOGIA

Hasieran gomendagarria da uraren eta energiaren ingurugiro–problematikari buruzko sarrera labur bat egitea. Urari dagokionez, ura bizitzarako duen garrantzia azalduko genuke, ur poluitutzat ulertzen dena definituz eta baliabide honek etorkizunean jasan dezakeen egoera adieraziz. Energiari dagokionez, energi iturri desberdinak, energi baliabideen egungo egoera eta hauen etorkizuna aztertuko ditugu, berriztagarriak diren iturriak eta ez direnak bereiziko ditugu, eta energiaren sor-kuntzan sortzen den ingurugiro–inpaktua aztertuko dugu.

Jarraian, hondakinen, uraren, energiaren eta lehengaien ingurugiro–problematika aztertu ondoren, Ingurugiroa Kudeatzeko Sistemai buruzko azalpen labur bat egingo da (IKS eta ISO 14000 Araudia).

Bi azalpen horiek egiteko, irakasleak “Energia, ura, eta ingurugiroa kudeatzeko sistemak” txostenean gaineratzen den material teorikoa erabil dezake.

Azalpena amaitu eta gero, oraindik osatu gabe dagoen 3. jardueran erabilitako “Errespetu txikiz egindako praktiken ingurugiro–eragina” izeneko gardenkia erabiliko dugu berriro. Gardenkia arbelean

jarrita, ingurugiroa gutxi errespetatzen duten praktika gehiago identifikatzen saiatuko gara, ideia-zorrotadaren teknikaren bitartez. Ikasleek post-it papertxoetan batez ere ura eta energiari buruz gardenkian agertzen ez diren praktikak adieraziko dituzte, eta irakasleak gardenkian idatziko ditu.

Zalantzarik gabe, gardenkian agertzen diren praktika desegokietako asko ikastetxean burutzen dituzte ikasle eta irakasleek. Jarraian proposatzen den jardueraren helburua INGURUGIROAREN GAI-NEKO PRAKTIKA EGOKIEN KODEA adostea da, Ikastetxean aplikatzeko.

Kodea egiteko teknika egokia ideia-zorrotada izango da, post-it papertxo bidez egingo dena, ondoren adierazten den mekanikari jarraituz:

1. Ikasleek Ikastetxean egin behar diren praktika egoki edo neurriak idatziko dituzte post-it papertxoetan, ideia bat post-it bakoitzeko. Zeregin hau egiteko denbora gehienez ere 3 minutukoa izango da. Klasea 20 pertsonakoa bada, eta bakoitzak batez beste 4 ideia jartzen baditu, 80 post-it izango ditugu.
2. Kalkulatu den denbora igaro ondoren, pertsona bakoitzak bere post-it papertxoak horma edo arbelean jarriko ditu, eta antzekoak iruditzen zaizkienak bata bestearen azpian jartzea esango diegu.
3. Jarraian klasea 3 pertsonako taldetan banatuko dugu (6 edo 7 talde). Horman jarri diren proposamenak talde-kopuruaren arabera zatituko dira, eta talde bakoitzari dagozkion neurriak emango zaizkio.
4. Talde bakoitzak kodearen agindu edo manamendu bat egin beharko du, multzo horretan agertzen diren ideia guztiak bateratuz.
5. Azkenik, agindu gehiegi sortu direla uste bada, eta zenbaki egokia 8 edo 10ekoa dela pentsatzen bada, komenigarria izango da garrantzitsuenak direnei eta Ikastetxean bete behar direnei buruzko bozketa egitea. Horretarako zerrenda ikasle guztiei emango zaie, garrantzitsuenari 3 puntu, hurrengoari 2 puntu eta hirugarren garrantzitsuenari puntu 1 emateko. Puntuazioen zerrenda jaso, eta punturik gehien lortu dituzten 8 edo 10 aginduekin kodea eratuko da.

Horrela denok adostutako kodea lortuko dugu. Hauekin hormirudi bat egingo da eta sukaldaritza-ko lantegietan ipiniko da.

Kodearen jarraipena tresna egokia izan daiteke berauen ikaskuntza ebaluatzeko, inolako zalantzarik gabe. Horretarako "Ingurugiroaren gaineko praktika egokien kodearen kontrola" izeneko fitxa erabiliko dugu.

Denbora librea geratzen baldin bada, ikasleek talde-lana burutzeko 10 edo 15 minutu utzi ahal izango dira.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Ikasleen partehartzea behatzea.
- Ingurugiroaren gaineko praktika egokien kode bat lantzea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Interesa eta partehartze aktiboa esleitzen diren jardueretan.

[illegible]

a

4. jarduera



IZENBURUA Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak: energia eta ura. Ingurugiroa kudeatzeko sistemak	KOKAPENA Gela balioanitza	KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu
---	-------------------------------------	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Energi mota desberdinen erabilpen edo produkzioak ingurugiroan sortzen duen inpaktua aztertzea.
- ☞ Bizitzeko uraren premiaz jabetzea.
- ☞ Janari-zerbitzua eskaintzen duten enpresetan energiaren eta uraren erabilera egokia egiteko neurriak proposatzea.
- ☞ Jarduerak ingurugiroan sortzen duen inpaktua murriztuko duten ingurugiroaren gaineko praktika egokiak kode bat lantzea.
- ☞ Ingurugiroa kudeatzeko sistemak eta kalitate-sistemak funtsean ezagutzea.

GARAPENA

Uraren eta energiaren ingurugiro-problematikari eta ingurugiroa kudeatzeko sistemei buruzko sarrera labur batekin hasiko gara.

Ondoren ingurugiroaren gaineko praktika egokiak kode bat adostuko eta hau ikastetxean betetzeko konpromisoa hartuko dugu, eta konpromisoen jarraipena egiteko modua aztertuko dugu.

Klasearen amaieran talde-lanarekin jarraituko da.

INGURUGIROAREN GAINEKO PRAKTIKA EGOKIAK

Azpian sinatzen dugun ikasleok ondokoa betetzeko KONPROMISOA HARTZEN DUGU:

1.
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.

_____ SINADURAK _____

Konpromiso hau berrikusi egingo da honako aldizkakotasun honekin:

TXOSTENA

ENERGIA, URA ETA INGURUGIROA KUDEATZEKO SISTEMAK

1- ENERGIA

ENERGI ITURRIEN ETA BALIABIDEEN KONTZEPTUAK

Energi iturri bat, berau hornitzeko gai dena da. Eskura dauden energi kantitateek energi baliabideak eratzen dituzte. Gizakiarentzako benetako arazoa energia erabilgarri bihurtzea da, eta berau aprobetxatzerakoan dagoen zailtasun-maila handiago edo txikiagoak baliabideen estimazio desberdinak egiteko aukera ematen digu.

Normalki, energi iturri bat gero eta kontzentratuagoa dagoen neurrian, bere berritzeko maila gero eta txikiagoa izango da. Honela, ikatza eta petrolio oso jatorri geologiko zaharra duten hobietan kontzentratuta daude, eta milioika urtetan zehar biltzen joan dira; gizakiaren energi kontsumoa dela-eta, hauek ia osorik desagertuko dira hemendik 50 urtetara. Baliabide hauek, beraz, ez-berriztagarriak dira.

Eguzki-energia eta beronetik eratortzen den biomasa, ordea, baliabide berriztagarriak dira, eguzki-energiaren fluxua etengabea delako. Oro har, eguzki-energia berehala aprobetxatu behar da, berau biltegitratzeko oso posibilitate gutxi baitaude.

ENERGI-ITURRI MOTAK ETA DAGOZKIEN BALIABIDEAK

Janari-zerbitzua eskaintzen duen enpresa bateko sukaldean gehien erabiltzen diren energi iturriak honako hauek dira: elektrizitatea eta gas propanoa, naturala eta butanoa.

Erabiltzen den unean elektrizitatea energia garbia bada ere, berau produzitzeko modu desberdinak eta bere produkzioarako erabiltzen diren lehengai desberdinen erauzketak ingurugiroarengan eragin negatiboa dute neurri batean edo bestean.

Gas propano, natural eta butanoaren errektuntzak atmosferarako jaulkipenak sortzen ditu, eta hauek negutegi-efektu edo lurraren birberotze gisa ulertzen denaren eta euri azidoaren eraketan laguntzen dute.

Energia elektrikoa honako hauen bitartez sortzen da:

- Errekuntzako zentral termikoak.
- Zentral nuklearrak.
- Energia berriztagarriak.

ERREKUNTZAKO ZENTRAL TERMIKOAK

Zentral hauetan erregai fosilen (ikatza, petrolioaren deribatu likidoak edo gas naturala) barne-energia bero gisa liberatzen da, eta honek korrante elektrikoa sortzen duten turbina eta alternadoreen mugimendua sortzen du.

Ikatzari dagokionez, bere ustiapenak eragin garrantzitsuak sortzen ditu paisajeetan eta osasunean, eta meatzarien silikosiaren kausa da. Ikatzaren errektuntzak sufre-dioxidoa sortzen du, eta atmosferaren poluzio honek bronkitis kronikoa eta euri azidoa sortzen du.

Petrolioaren industria ere hondamendi handiei loturik dago: suteak putzuetan, plataformetan eta itsasuntzietan, ozeanoen eta lurzoruen poluzioa sortuz. Bere deribatuetako batzuen errektuntzak (olio erregaiak), ikatzak bezalaxe, sufre-dioxidoa sortzen du.

ZENTRAL NUKLEARRAK

Estazio nuklear hauen eraikuntzari buruzko eztabaidak, funtsean, hauek ekar ditzaketen arriskuak oinarritzen dira: alde daudenek adierazten dute zentral nuklearretan egon diren heriotzak gutxi direla, eta aurka agertzen direnek airean eta uretan zabal daitekeen poluzio erradioaktiboaren eta ibaien poluzio termikoaren arriskua aipatzen dute. Bai eta egon dai-



tezkeen istripuen arriskua ere. Populazioak bere osotasunean jasan ditzakeen efektuak ebaluatu behar direla adierazten dute (minbizia areagotzea, hondakin erradioaktiboak, eta abar).

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Iturri berriztagarrien kasuan, baliabideak ia agortezinak dira, baina askatzen duten fluxua bakarrik erabil dezakegu.

Eguzkia da, alde askorekin gainera, Lurrean dagoen energi iturri eskuragarriarik handiena. Energia hau zuzenean ustia daiteke, eguzki-energia elektrizitate bihurtzen duten kolektore lau edo zelula fotovoltaiakoak bezalako kaptadoreekin.

Energia hidraulikoa eguzki-energiatik eratortzen da zuzenean. Eguzki-energiak ozeanoetako gainazaleko geruzen lurrinketa produzitzen du. Ur-lurrina goranzko aire-korronteen bitartez igotzen da eta odeiak osatzen ditu, eta ondoren euri-moduan erortzen da lurrera. Ur-jauziaren energia potentziala energia elektriko bihurtzen da. Hala eta guztiz ere, ez ditugu honek dakartzan ingurugiro-arazoak: haran landagarriak desagertzea urtegiak eraikitzeke, basoak galtzea, populazioa galtzea urperatzen diren lekuetan, higadura handitzea, eta abar.

Energia eolikoa, haizearen energia abiapuntutzat hartuz energia elektrikoa sortzean oinarritzen da. Haizeak sortzen duen energia, mendien gailurretan eraikitzen diren zentral eolikoetan hartzen da. Instalazio-mota honek ingurugiro-inpaktuak sortzen ditu, biztandu gabeko zona naturalak edo larreak okupatzen dituelako.

OSTALARITZAREN SEKTOREAN ENERGI KONTSUMOA MURRIZTEKO AHOLKUAK

AHOLKUAK SUKALDEAN

HOZKAILUA ETA IZOZKAILUA

- Elikagaiak aukera hori ematen badu, produktua hozkailuan desizoztu, hasiera batean izozkailuaren kontsumoa eta ondoren mikrouhin-labearena saihesteko.
- Hozkailuaren eta izozkailuaren atzealdeak garbi eta ongi aireztatuta edukitzea.
- Hozkailua eta izozkailua bero-fokuetatik ahalik eta urrunen instalatzea.
- Hozkailuaren eta izozkailuaren atea behar den denboraz bakarrik irekitzea.
- Noizean behin atearen estankotasuna egiaztatzea.
- Hozkailuaren eta izozkailuaren tenperatura fabrikatzailearen jarraibideak kontuan izanik erregulatzea.
- Izozkailuan 5 milimetroko lodiera duen izotz zuriko geruza bat agertzen baldin bada, eki-poak gehiegi ez lan egiteko eta bere eraginkortasuna ez galtzeko, desizozten utzi.
- Hozkailuan elikagai berorik ez sartu.

ONTZI-GARBIGAILUA

- Fabrikatzailearen katalogoa kontsultatu, beharizanetara hobekien egokitzen den garbiketaprograma erabiltzeko xedez. Honela ur-kantitate justua eta beharrezkoa den tenperatura minimoa erabiliko da, energia soberan gastatu gabe.
- Aurreztekoak diren programak erabiltzen saiatu.
- Ontzi-garbigailua beteta dagoen martxan jartzea, baina gehiegi kargatu gabe.
- Piezak ontzi-garbigailuan behar bezala ipintzea.
- Platerak ontzi-garbigailuan sartu aurretik urarekin pasatzen badira, beti ur hotza erabili.
- Iragazkian gelditzen diren zikinkeria txikiak askotan garbitu.

LABEA ETA SUKALDEA

- Hondo laua duten eltzeak, zartaginak eta antzekoak erabili, eta plaka baino handiagoak badira, hobe.
- Labean eta plaka elektrikoan, tenperatura behar denean jaitsi eta itzali, horrela geratzen den beroa hobeto aprobetxatuko baita.
- Bitrozeramikek eta indukzio-plakek energia hobeto aprobetxatzen dute.
- Elikagaiak irakiten hasi direnean, sua maximoan ez da mantendu behar.
- Egosketak dirauen bitartean, eltzeak taparekin eduki behar dira.
- Plaka edo suaren potentzia kozinatzen den elikagaiaren beharrianetara egokitu.
- Neurri txikiko elikagai bat erretzeko labe handi bat ez erabili.
- Presio-eltzearen abantailak aprobetxatu: kozinatzeko denbora eta, beraz, energia aurrezten du.
- Labea, plakak eta erregailuak aldizka garbitu, ekipoen funtzionamendu egokia bermatzeko.

ARGIZTAPENA

- Saia zaitzez eguzkiaren argia erabiltzen, naturalena eta kosturik txikiena duena da.
- Argiztapen-maila ez da eskusiboki lanparen potentziaren araberakoa. Gaur egun dauden lanparek lehengokoek baino gutxiago kontsumitzen dute eta argiztapen-maila berdina edo hobe eskaintzen dute.
- Erabilpen-denbora luzea eta jarraia denean, kontsumo baxuko lanparak ipintzeak kontsentsatzen du. Halaber, pizketa laburrak eta errepikatuak egiten diren lekuetan, lanpara hauen bizitza asko jaisten da eta bere erabilpena ez da errentagarria.

LANPARA-MOTAK

- Bonbilak kontsumorik handiena eta iraupenik txikiena dutenak dira.
- Lanpara halogenoek bonbilek baino %50 gutxiago kontsumitzen dute. Beren iraupena handiagoa da eta argi-errendimendua txikiagoa baina konstantea da denbora osoan zehar.
- Hodi fluoreszenteen kontsumo energetikoa aurreko lanparena baino txikiagoa da. Bonbila konbentzionalak baino zortzi aldiz gehiagoko iraupena dute.
- Kontsumo baxuko lanparak, lanpara tradizionalen neurri, forma eta euskarrietara egokitzen joan diren hodi fluoreszente txikiak dira. Kontsumo energetikoa bonbila konbentzionalarena baino askoz ere txikiagoa da.

ARGIZTAPEN-SISTEMAREN BESTE EKIPO BATZUK

- Erreguladore elektronikoak, egokitu ondoren, energia aurrezte ahalbidetzen duten ekipo bakarrak dira.

BEROGAILUA

- Tenperatura egokia edukitzeak ez du giro beroa edukitzea esan nahi.
- Bero-galerak txikiagoak dira isolamendu-maila handiagoa den heinean (isolamendua daukaten hormak, sabaiak eta lurzoruak, kristal bikoitza...).
- 20° C baino piska bat beheraxeago dagoen tenperatura pertsona gehienentzat egokia dela kontsideratzen da.
- Berogailuaren tenperatura gradu 1 igotzeak energia ehuneko 5 eta 7 bitartean gehiago kontsumitzea dakar.
- Erregulazio eta kontrolerako sistema egokia edukitzea funtsezkoa izango da. Gehien erabiltzen diren erregulazio-elementuak honako hauek dira:
 - *Tenperaturako kanpo-zunda*. Sistemari galdara abiarazi edo gelditzea beharrezkoa den erabakitzen ahalbidetzen dio.



- *Temperaturarako barne-termostatoa*. Kanpo-zundarik ez dagoenean galdararen pizte eta itzaltzea kontrolatzen duena da.
- *Kronotermotatoa*. Barne-termostatoari erloju bat gaineratzen dio.

2- URA

Ura, egunero funtzio askotarako erabiltzen dugun eta bera gabe bizitza pentsaezina eta ezinezkoa izango litzatekeen “zera hori” da.

Ura H_2O formula duen osagai kimiko bat da. Bizidun guztien osagai nagusia da eta bere garapenean ezinbesteko zeregina burutzen du. Biziaren oinarria da, bera eta bere propietate berezirik gabe bizia Lurrean ezinezkoa izango bailitzake.

Lurrean dagoen ur-bolumena beti antzekoa da eta etengabe mugimenduan dago Eguzkiaren beroaren eraginari eta grabitatearen indarrari esker. Itsaso, ozeano eta ur kontinentaletatik atmosferara lurrinketaren bitartez igarotzen da, eta atmosferatik izotz, ibai, laku, lurpeko ur, itsaso eta ozeanoetara euri moduan igarotzen da. Uraren joan-etorri honi guztiari, Lurrean eta atmosferan duen bere mugimenduari, guztizko ur-kantitatea konstante mantenduz, ziklo hidrologiko deritzo.

URAREN BANAKETA PLANETAN

Gutxi gora-behera gure planetaren azaleraren 2/3 urarekin estalita daude. Kantita hau handia bada ere, gizakiarentzat baliabide honen erabilgarritasuna mugatzen duten faktore desberdinak daude.

Planetako uraren guztizkoaren %97 baino gehiago itsaso, ozeano eta bestelako masa gatzdunetan aurkitzen da. Giza-erabilerarako bere erabilgarritasunak gatzgabetze-tratamendu bat (gatz ezabatzea) eskatzen du, potabilizazio-tratamendua baino kostu handiagoa duena.

Gainontzeko %3 ur gezari dagokio eta izotzean, ibai, laku eta lurpeko uretan aurkitzen da. %3 honetatik, %2,25 Poloetako, Groenlandiako eta mundu osoko mendietako glaziarretan aurkitzen da. Eta gainontzeko %0,75 lurpeko uretan dago, oso ur-kantitate txikiak ibaietan, lakuetan, planetako atmosferan eta gizakietan geratzen direlarik.

Ibaiek gizakiari ur-baliabideen %80 ekartzen diote, planeta osoan dagoen uraren %0,000003 besterik ordezkatzeko ez dutelarik. Ura Lurrean ugaria bada ere, pertsonentzat ez da batera esku-ragarria.

URA ETA GIZAKIA, ISTORIO AMANKOMUNA

Ura gizakiak bere jarduera desberdinetan gehien erabiltzen duen baliabideetako bat da. Batez ere nekazaritzan, industrian eta etxean erabiltzen da, bai eta jolas-jardueretan, zerbitzu publikoetan eta komunikazio eta merkataritzarako bide gisa ere.

Janari-zerbitzua eskaintzen duten enpresetan uraren erabilera etxeko erabileraren oso antzekoa da, higiene pertsonalerako, elikagaiak prestatzeko, garbiketarako eta hondakinak ezabatzeko erabiltzen da.

1995. urtean Nazio Batuen Erakundeak adierazi zuen 2000. urterako eskura egongo zen ur edan-garria erdira murriztuko zela, populazioaren gehikuntzaren eta zeuden erreserben poluzioaren ondorioz.

URAREN POLUZIOA

Ura poluituta dagoela esan ohi da xede jakin baterako erabili ezin denean (ureztaketa, edaria, industrierako aplikazioak, eta abar), substantzia kimikoak dituelako, materia esekiduran duelako, organismoak hilda nahiz bizirik dituelako, edota tenperatura altua edo erradiazio-moduren bat duelako.

Poluzioaren kontzeptua erlatiboa da. Emango zaion erabileraren arabera, ura poluituta egon daiteke ala ez.

Uraren poluzioak bere jatorria iturri desberdinetan dauka. Hona hemen nagusiak:

- Abeltzaintza– edo nekazaritza–jarduerengatiko poluzioa.
- Industria–jarduerengatiko poluzioa.
- Garraioagatiko poluzioa.
- Etxeko poluzioa.

Janari–zerbitzua eskaintzen duten enpresetako uraren poluzioa etxeko uraren poluzioarekin pareka daiteke. Poluzio hau gorozkiak, janari–hondarrak eta bestelako hondakinak (xaboia, lisi-ba, plastikoak, paperak...) dituzten hondakin–uren isurketagatik gertatzen da.

URA, ONDASUN URRIA

Antzina gizakiak ura edateko bakarrik erabiltzen zuen. Gaur egun, ordea, pertsona bakoitzaren kontsumoa 300 litro/egun baino gehiago da. Kantitaterik handienak industrian eta nekazaritzan kontsimutzen dira, eta etxeko erabileren artean, arropa garbitzeko, bainurako eta komunerako.

Bizi–mailaren gehikuntzarekin zerikusi handia duen uraren eguneroko eskariaren gehikuntza honi, munduan gertatzen ari den populazioaren gehikuntza geldiezinari gaineratu behar zaio.

Eta, hau gutxi balitz, industria– eta hiri–isurketek eta ongarriak eta pestizida toxikoak dituzten ureztatzeko urek etorkizunean behar izango dugun ura suntsitzen jarraitzen dute.

Eta errealitatea zera da, egoera honi esker hala garatu gabeko herrialdeek nola herrialde industrializatuenean hornikuntza–arazoak dituztela. Estatu Espainiarrean uraren krisia nabaria da duela hamar urtez geroztik erdialdean eta mediterraneoko inguruan. Baina, erne! Horrek ez du esan nahi guri gauza bera gertatuko ez zaigunik. 1987–1990 urteetan zehar Euskal Autonomia Erkidegoan lehorte–aldi bat izan genuen eta ura moztu ere egin zen. Espainia mundu osoan ur gehien kontsumitu eta xahutzen duen hirugarren herrialdea da.

Hona hemen nahita edo nahi gabe egiten dugun “etxez–etxeko xahuketaren” zerrenda bat. Atera ondorioak!

Irekita dagoen kanil batek 10 litro ur uzten ditu ateratzen minutuko.

Bainuontzi bat betetzeko 300 litro ur behar dira.

Bost minutuko dutxa batek 100 litro ur gastatzen ditu.

Hortzak garbitzerakoan kanila ez ixteak 20 litro ur galtzea dakar.

Platerak garbitzen ditugun bitartean kanila irekita uzteak 100 litro ur gastatzea dakar.

Ontzi–garbigailu batek...

Tantaka ura darion kanil batek egunean 150 litro ur gal ditzake.

Hala etxean nola janari–zerbitzua eskaintzen duen enpresan, oso arau erraz batzuei jarraituz, milaka litro ur aurrez ditzakegu urtero, eta horrek enpresarentzat eta etxearentzat aurrezki ekonomiko handia dakar... bai eta Mundu osoarentzat ere.

Egin dezakegun lehen gauza zera da: gure etxean edo lantokian ur–ihesak ote dagoen begiratzeari, eta hala izanez gero, ihes hori konpontzea.

Hori nola egin? Oso erraza da: enpresan bakarrik zaudenean edo inor ura erabiltzen ez dagoen une bat aprobetxatu, eta kontagailuak markatzen duena paper batean idatzi. Une bat (adibidez ordu bete) pasa ondoren berriro begiratu, eta kopuru desberdina markatzen badu... ihes bat aurkitu duzu!

Ura galtzen duen beste ohiko puntu bat komuna da. Ura galtzen ote duen jakiteko, zisternako ura janarirako koloratzailearekin koloreztatu dezakegu. Komun batek urtero 83.000 litro ur edangarri gal ditzake, honek urte beteko egun bakoitzean hiru bainuontzi betetzea suposatzen du.

Ura aurrezteko beste modu bat, platerak garbitzen ditugun bitartean kanila itxita edukitzea da.



Etxean ere ura aurrezteko posible da:

- Hortzak garbitzen dituzun bitartean, kanila ez utzi irekita.
- Dutxa zaitez, eta ez bainatu.
- Kateari tiratzen diogun bakoitzean 8tik 20ra litro ur edangarri isurtzen ditugu hustubidean. Ur-kantitate hori murrizteko komunaren deposituaren edukiera murriztu dezakegu, zisternan hondarrez betetako botila bat edo harriak sartuz, beti ere mekanismoak ez hondatzeko kontuz arituz. Kateari tiratzen diogun bakoitzean litro erdia, litro bat edo litro eta erdi aurreztuko duzu.
- Udan, ez utzi kanileko ura isurtzen freskatu arte. Ur freskoa nahi baduzu, hartu botila bat, bete eta hozkailuan sartu.
- Garbigailu automatikoa ongi bete, hau martxan jarri baino lehen.

Ostalaritzarako aholkuak:

- Ontzi-garbigailuak eta eltze-garbigailuak ongi bete, hauek martxan jarri baino lehen.
- Arrainak, barazkiak eta abar garbitzen dituzun bitartean, kanila ez utzi irekita.
- Ez desizoztu kanilaren azpian.
- Generoak hozterakoan ez egin kanilaren azpian, izotzarekin baizik, ur-kontsumoa askoz txikiagoa izango baita.

3- INGURUGIROA KUDEATZEKO SISTEMAK

Enpresa-sektorea oso uzkur agertu da beti bere jarduerak ingurugiroarengan eragindako inpaktuak kontuan hartzeko garaian, baina halere jarrera hori aldatzen ari da, batez ere ingurunearekiko errespetuzko kudeaketa gero eta gehiago eskatzen ari diren kontsumitzaileen prezioaren ondorioz.

Enpresak ingurugiro-kostuak hiru mekanismoren bitartez barneratzeko motibatzen ari dira:

1. Legezko arauak eta kontrolak: erregulazio zuzenak ezarritik jaulkipen- eta isurketa-mugen, zarata-kontrolaren, sortutako hondakinen kontrolaren,... gainean.
2. Autoerregulazioa: enpresa bakoitzak jarduketara-estandar batzuk, helburu batzuk eta ikusatzeko modua definitzen ditu poluzioa murrizteko Ingurugiro-kudeaketarako Sistemen esparruan.
3. Tresna ekonomikoak: Estatuak laguntza eta onura ekonomikoen bitartez enpresek ingurunearentzako portaera egokiagoak izan ditzaten lor dezake, eta era berean poluzioari loturiko karga edo zergak bezalako mekanismoek helburu hori lortzeko lagungarriak izan daitezke.

Kalitatea Ziurtatzeko arauak (ISO 9000), eta ingurugiroa kudeatzeko sistemen arauak (ISO14001) Erabateko Kalitatearen Sistemaren esparruan barne hartzen dira, bi kasuetan ikusmolde paraleloak bereganatuz.

Erabateko Kalitatearen sistema bat duen enpresak honako ezaugarri hauek ditu:

- emaitza ekonomikoak,
- prozesuen kudeaketa eta etengabeko hobekuntza,
- pertsonalaren prestakuntza, politika eta estrategia argi eta garbi definituta edukitzea,
- zuzendaritzaren aldetik maila gorena lortzeko nahia.

Ingurugiroari buruzko kontsiderazioak ostalaritzako enpresetara ere iritsi dira, sektore honek bere ingurunean sortzen duen inpaktua oso handia ez izan arren, profesionalen eta erabiltzaileen sentsibilizazioa errespetu handiagoko portaerak bultzatzen ari da.

GLOSATEGIA

ISO, nazioarteko normalkuntzarako erakundea da; 1947an eratu zen eta 91 estatukide biltzen ditu; bertan estatu bakoitzeko erakunde normalizatu nazionalak parte hartzen dute.

ENZ, Europako Normalkuntzarako Zentroa, Europan 1961ean ISOk garatzen ez zituen arauak lantzeko eratu zen; gaur egun ISO arauak EN arau europartzat hartzen ditu. Espainian, AENOREk ISO araua bereganatzen du eta EN UNE deitzen du.

ISO 14000. Ingurugiroa kudeatzeko sistemen ezarpenarekin, ekoauditoretzekin, bizi-zikloarekin eta etiketatze ekologikoarekin erlazionatutako nazioarteko arauen familia.

ISO 9000. Kalitatearen terminoa, bere kudeaketa eta ziurtatze-sistema xehekatzen duen nazioarteko arauen familia.

AENOR da, Espainian, NORMALKUNTZA eta EGIAPTAPEN zereginak garatzeko erakundea Industria eta Energia Ministerioak, 1986ko otsailaren 26an hartutako Agindua bitartez. Berak igortzen ditu UNE arau espainiarrak, Estatuko Buletin Ofizialean (BOE) argitaratzean publiko bihurtzen direnak. Gainera, nazioarteko arauak gaztelerara itzultzeko ardura ere badu.

Arau europarra onetsi ondoren, arau nazionaltzat hartu behar da bere osotasunean, eta arau europarrarekin bat ez datozen arau nazionalak baztertu egin behar dira.

Normalkuntza: helburu bat betetzera zuzentzen den prozesu sistematikoa da; bete beharrekoa arauak edo lanak egokituko direneko arauak azaltzen ditu.

Homologazioa: Zerbait homologatzean, nahi eta nahi ez, erakunde kalifikatuak emandako aginduen menpe jartzen dugu, nahi eta nahi ez bete beharreko legeekin edo araudiekin bat ote datorren baieztatze, betiere erkidegoaren interesak kontuan hartuta.

Produktu, prozesu zein zerbitzu bat erakunde batek onestea, arauzko xedapenen bitartez ahalmena duena.

Egiaptapena: Produktu edo zerbitzu bat, finkatu diren arau teknikoetara (ezagunenak ISO, DIN eta UNE dira) egokitzen dela adierazten duen agiria. Hasiera batean borondatezko zerbait da, eta ondoren proba desberdinak egiten dira, eta probak gainditzen badira, erakundeek erabakiko dute balore ziurrak, benetako merituak dituela eta erabiltzeko edo kontsumitzeko egokia dela.

Erritmo berdean

Samba Hotela,
lehen ISO 14.001
kalitate-ziurtagiria
Espainian

Loret de Mar udalerrian dagoen Samba Hotela ISO 14.001 ingurugiro-kalitaterako ziurtagiria lortu berri du, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundeak (ISO) 1996. urtean argitaratutako arauaren arabera adar desberdinetako enpresei ematen zaiena. Espainian hotel-establezimendu batek lehen aldiz lortzen duen ziurtagiri honek, 380 logelako hondartza-hotel honek egindako ahalegina errekonozitzen du. Hotela 30 milioi pezetako inbertsioa egin du kontsumo baxuko argiak instalatuz, zurezko balkoiak kristal bikoitzeko eta aluminiozko beste batzuekin ordezkatzuz, komunetako zisteretan sakagailu bikoitza ipiniz, eta errendimendu altuko galdara berriak eta abiadura handiko garbigailuak martxan jarritz.

Ondorengo informazioa el País egunkarian azaldu zen 1998-12-6an



5. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
<i>Lan-segurtasuna eta larrialdien aurreko jarduna</i>	<i>Gela balioanitz, sukaldaritzaren eta lantegia eta etxea</i>	<i>2 ordu</i>

HELBURU OPERATIBOAK

- Sukaldaritzako arriskuak identifikatzea, istripuen prebentziorako neurriak deduzituz.
- Sukaldaritzan erabiltzen diren produktu toxiko eta/edo arriskutsuak ezagutzea.
- Larrialdien aurrean behar bezala jarduten ikastea.

BALIABIDEAK

- Eranskina: "Osasuna, ingurugiroa eta lana".
- Baliabide didaktikoen gida.

METODOLOGIA

Jarduera hau gai hauetan adituak direnek burutzea proposatzen da; suhiltzaileak, sanitateko pertsonak, eta abar. Araba eta Bizkaia kasu, Aldundiaren suhiltzaile-zerbitzuko pertsonak gai hauetarako hitzaldiak ematen dituzte ikastetxeetan, eta material didaktiko asko dago.

Ondorengo gai hauek lantzea proposatzen da:

- Lan-segurtasuna eta istripu-prebentzioa: erredurak, ebakiak, toxikapenak, eta abar.
- Ingurugiroan eragina duten istripuen prebentzioa: isurketak, eta abar.
- Produktu toxikoak eta/edo arriskutsuak. Batez ere sukaldean garbiketan erabiltzen direnak.
- Larrialdietan behar bezala jardutea. Suteak suteak, plantxa, durduntzi eta abarretan.

Garrantzitsua da jarduerak sukaldaritzako produkzio-prozesuarekin erlazionatzea, eta bi orduko iraupena gomendatzen da.

Hitzaldia ematen duten pertsonak eskatzen duten denboraren arabera, denbora soberan badago talde-lana egiten jarrai daiteke.

Jarduera hau irakasleak ere irakas dezake, eta horretarako honako eranskina erabil dezake: "Osasuna, ingurugiroa eta lana, substantzia arriskutsuen erabilera Ostalaritzaren sektorean", klasean material hori azalduz eta gero honi buruzko eztabaida eginez.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Ikasleen partehartzea behatzea.
- Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak betetzen diren behatzea.
- Galdesorta betetzea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Interesa eta partehartze aktiboa gomendatu diren jardueretan.

a

5. jarduera



IZENBURUA Lan-segurtasuna eta larrialdien aurreko jarduna	 KOKAPENA Gela balioanitz, sukaldaritza-lantegia eta etxea	KALKULATU DEN DENBORA 2 ordu 
--	--	--

HELBURU OPERATIBOAK

- ☞ Sukaldaritzako arriskuak identifikatzea, istripuen prebentziorako neurriak deduzituz.
- ☞ Sukaldaritzan erabiltzen diren produktu toxiko eta/edo arriskutsuak ezagutzea.
- ☞ Larrialdien aurrean behar bezala jarduten ikastea.

GARAPENA

Jarduera honetan ondorengo gaiak landuko ditugu:

- Lan-segurtasuna eta istripu-prebentzioa.
- Ostalaritzan erabiltzen diren produktu toxiko eta/edo arriskutsuak.
- Larrialdien aurrean jardutea.

PROPOSATZEN DEN JARDUERA

Galdesorta hau beteko duzu:

GALDESORTA

Zein dira ostalaritzan erabiltzen diren substantzia arriskutsuak?

.....

.....

.....

Zein arrisku dakarte substantzia horiek gure osasunarentzat eta ingurugiroarentzat?

.....

.....

.....

Nola prebenitu edo murriztu daiteke substantzia hauek ingurugiroan eragiten duten inpaktua?

.....

.....

.....

Jarduera bukatu ondoren galdesorta bete berriro, eta sukaldaritza, segurtasuna eta ingurugiroari buruz landu denaren laburpen bat egizu.



5. jardueraren eranskina



OIL

Osasuna, Ingurugiroa eta Lana

Substantzia arriskutsuen erabilpena Ostalaritzaren sektorean

Non aurkitzen dira substantzia arriskutsuak?

Hala osasunerako nola ingurugirorako arriskutsutzat jo daitezkeen substantzia asko daude, sektore honetako lanpostu bereizgarri desberdinetan askotan erabiltzen diren produktuen konposizioan agertzen direnak. Produktu hauetan substantzia desberdinak aurkitzen dira, eta beren etiketetan adierazten da propietate toxikoak eta arriskutsuak (disolbatzaile organikoak), sukoiak (pinturak, aguarras), korrosiboak (libratzaileak, azidoak, labe- eta komun-garbigailuak, ontzi-garbigailuetarako produktuak), narritagarriak (lisiba, amoniakoa, aguarras), lehergarriak (aerosolak, adibidez aire-garbitzaileak edo pinturak) eta ingurugirorako arriskutsuak (CFCak, pestizidak) dituztela. Beheko taulan, substantzia arriskutsuak izan ditzaketen eta sektoreko arlo desberdinetan maiz erabiltzen diren produktu batzuk identifikatzen dira.

Ingurugirorako arriskuak

Aipatu diren substantzia guztiak ingurugiroan ustekabeen (isurketa, ihesa, eta abar) edo erabili, bitegiratu edo hondakin bihurtzen direnean sar daitezke, eta bereziki airea polui dezakete, beren lurrinketaren ondorioz, ura ere polui dezakete, airearen lagatzearen edo hondakin-uretara egindako isurketaren ondorioz, bai eta lurzorua ere, airean lurzoruan egindako lagatzearen, ur poluituen mugimenduaren edo zuzeneko aplikazioaren ondorioz. Substantzia hauek, oro har, kantidad txiki eta sakabanatuetan erabiltzen dira, eta horregatik arazorik larrienak, esate baterako zona berean dauden hotel-multzo batetik egindako jaulkipen, isurketa edo hondakinen pilaketaren ondorioz edo jardueraren iraupen luzearen ondorioz sortzen dira, eta ez hotel jakin baten isurketa puntual baten ondorioz. Ingurugiro-inpaktua handitu egiten, da hotel-jardueraren

intentsitaterik handiena askotan natur balio handiko guneetan kontzentratzen delako.

Lehen adierazi bezala, sektore honetan erabiltzen diren substantzia eta jardueren aniztasuna oztopo handia da hauek bakoitzaren ingurugiro-arazo bereziak aztertzeko garaian (nahiz eta azterlan honen xedea hori ez izan). Aitzitik, arazorik garrantzitsuenetako batzuk deskribatuko dira, hala nola: hondakin-urak sortzea, airearen kalitatea degradatzea, ozono-geruza degradatzen duten substantziak kanporatzea, lurzorua poluitzea eta hondakin arriskutsuak kudeatzea.

• Hondakin-urak

Arazo nagusienetako bat zera da; garbiketa, mantenimendu eta antzeko jarduerak askok ura erabiltzea eskatzen dutela, eta produktuetan eta/edo beren metabolitoetan (degradazioaren bitarteko produktuak) barne-hartzen diren substantzia arriskutsuak hondakin-uretan egotea dakar. Baliteke hotel asko, batez ere beren kokalekuaren ondorioz, Hondakin-uren Araztegi (HUA) bat barne-hartzen duen estolderia-sare baten barruan ez egotea eta zuzenean itsasora edo hobi septiko batera edo ura lurpean iragazteko funtzioa betetzen duen antzeko putzu batera zuzenean isurtzea. Poluitzaileen presentzia seguru aski baxua izango da, baina lehen esan den bezala, denbora luzean zehar egindako isurketa iraunkorrak poluitzaileak sakabanatzen eta lurzorua eta lurpeko urak poluitzen lagun dezake.

Urean fosfaten metaketari arreta berezia eskaini behar zaio. Fosforoa, landareen hazkundera gehien mugatzen duen

ARLOA	PRODUKTU ARRISKUTSUAK
Sukaldea	Ontzi-garbitzailea, labe-garbitzailea, deskoipeztatzaile orokorrak, lurzoru-garbitzailea, eta abar.
Ikuztegia	Detergenteak, leungarriak, perkloroetilenoa lehorreko garbiketari, eta abar.
Garbiketa	Lurzoru-garbitzailea, sitsen aurkakoa, aire-freskagarriak, amoniakoa, lisiba, argizariak, desugertzailak, akuaforteak, deskoipeztatzailea, intsektizidak, kristal-garbitzaileak, beste zenbait garbitzaile orokor, eta abar.
Lorazaintza	Intsektizidak, ongarri kimikoak, eta abar.
Igerilekuak	Kloroa, algizidak, ph-erregulatzaileak, hipokloritoak.
Mantenimendua eta konponketak (motoreak-hozte-ekipoak, bero-, kuntza eta abar, pintura, itur-, gintza elektrizitatea, eta abar.)	Pinturak, komun-libratzaileak, fluoreszente erabiliak, CFCak, olio lubrifikatzaileak, eta abar.

faktorea denez gero, eutrofizazioaren erantzule nagusia da (efektu honek gehiegizko ongarritzea eta, beraz, algen eta ureko landare-espezieen hazkunde handia dakar, eta hauen degradaziorako uretan disolbatuta dagoen oxigenoa kontsumitzen da, gainontzeko izakientzat agortuz, eta bereziki arrainen heriotza ekarritzen). Detergenteek eta garbiketako produktuek, ingurugiroa egiten den fosfato-isurketaren guztizkoaren %20 ordezkatzeko dute. Estatu Espainiarreko urtegien %30–60 bitartean (iturrien arabera) eutrofizatuta daudelako dokumentatuta dago. Zenbait herritan, adibidez Holandan, lurgaineko uretan fosfato-kargak murrizteko neurriak hartu dira, muga-balioak erabat gainditzen zituztelako, hala nola: ongarririk erabilerik murriztea, fosfatoak detergenteekin ordezkatzeko, eta hauek araztegiatan ezabatzea.

Era berean, uretan konposagai toxiko iraunkorrak egotea saihestu behar da, adibidez disolbatzaile organokloratuak edo metal astunak, beren izaera iraunkorra eta biometagarria dela kontuan izanik uretako organismo askorentzat kaltegarriak direlako. Maiz aurki daitezkeen arrisku gehigarri bat zera da; HUAek sektore honetatik datozen poluitzaile guztietarako tratamendu-sistemarik ez edukitzea, batez ere substantzia organokloratu eta fosfatoetarako.

• Ozono-geruza

Ozono-geruza substantzia batzuen zuzeneko liberazioaren (CFCak edo HCFCak) edo zeharkako liberazioaren (PERC karbono-tetrakloruroa degradatzen da, eta honek ozonosfera ere degradatzen du) ondorioz degradatzen da, ikusmenean eta larruazalean sortzen dituen eraginekin. CFCen fabrikazioa debekatuta dago 1996. urteaz geroztik, salbuespen batzuekin, baina oraindik ere ia hozte-zirkuitu guztietan eta aire-egokituko sistema askotan aurki daitezke. HCFCak beren ordezkatzailak izan ziren urte askotan zehar, hauek ere ozono-geruzarako kaltegarriak zirela ikusi zen arte, eta “spray”-en edo aerosolen potioetan gas propulsaile gisa aurki daitezke, eta beraz modu egokian kudeatu behar dira bere erabilera amaitzen denean, atmosferara libera daitezkeen saihesteko xedez.

• **Hondakin arriskutsuen sorkuntza**
Pinturen, plagiziden eta aerosol batzuen ontziak, pilak, fluoreszenteak eta kontsumo baxuko bonbilak, hozkai-

luak, produktu fitosanitarioak eta beren edukiontzia, pintura-potoak, motore-olioak, sendagaiak, aire egokituko sistemak, fotokopiagailu eta inprimagailuan kartutxoak, besteak beste, hondakin arriskutsuak dira eta, legeriaren arabera, hauek etxeko zaborrekin batera isurtzea debekatuta dago, hondakin arriskutsu bezala kudeatu behar baitira. Zenbait Autonomia Erkidegotan “puntu garbien” sare bat dago, eta bertara hondakin arriskutsuen kantitate txikiak eraman daitezke behar bezala bananduta. Aukera hau ez dagoen lekuetan, sektore honetan sortzen diren kantitateak txikiak direla eta hauek behar bezala kudeatzeko kostuak handiak direla kontuan izanik, Administrazioak hainbat hilabetero (gehienez ere 6 hilabetean behin) hondakin hauek biltzeko egun bat planifikatu beharko luke, ingurugiroaren babesa ahalik eta gehien eta kostu handirik egin gabe bermatzeko xedez.

• Beste zenbait arazo: airearen eta lurzorua poluzioa

Sektore honetan substantzia arriskutsuen erabileratik eratortzen diren **aire-kalitatearen** arazoak txikiak izango dira, orokorrean hartuta beren kontribuzioa oso txikia delako beste iturriekin (trafikoa, industria, nekazaritza eta abeltzaintza-jarduerak, eta abar). Hala eta guztiz ere, airera egiten den substantzia askoren jaulkipenak eta inguruko hoteletako jardueren ondoriozkoak bertako airea degradatzen lagun dezake. Horregatik gomendagarria izango litzake arriskutsuak eta lurrinkortasun handikoak diren produktuak (adibidez disolbatzaile organikoak) eta bereziki aerosolak ahal den neurrian ordezkatzeko. Konposagai organiko lurrinkorren


(KOL) presentziak, disolbatzaileak erabiltzearen ondorioz, eta eguzki-argiaren aurrean dauden beste poluitzaile batzuen (NO_x) presentziak, airean poluitzaile fotokimikoak eratzen laguntzen du neurri handi batean, adibidez ozono troposferikoa, eta hala osasunerako nola ekosistemarako arazoak sortzen ditu.

Lurzorua poluzioa potentziala lora-zaintzaren sektorean plagizida eta ongarririk kimikoen zuzeneko aplikaziotik eratortzen da. Kantitate txikiak izan arren eta plagiziden aplikazioan arauak eta jarraibideak errespetatu arren, gune berean hotel-jarduera askoren kontzentrazioak epe luzera lurzorua poluzio handia ekar dezake.

Jarduteko irizpideak

Osasunerako eta ingurugiroarako arriskuak identifikatu ondoren, jarduteko ordenak irizpide hauek jarraitu behar ditu lan- eta bizi-kaliterik handiena lortzeko xedez, hala nola: 1. *produktzio garbia edo prebentzioa*, 2. arriskuaren minimizazioa *praktika egokien* aplikazioaren bitartez eta, azkenik, kontrol-neurriak edo *hodi-amaierarako* neurriak hartzea (disolbatzaileen kasuan, aspirazio-kanpaiak erabiltzea, gas-jaulkipenen arazketa, KOLen kondentsazio eta berrerrabilpena, babes indibidualerako ekipoen (BIE) erabilpena, eta abar). Eskemak programaren barruan jardueren dute ordena eta hierarkia erakusten du, kontuan izanik jardura hauek langile eta hiritarren osasunaren eta ingurugiroaren babesera orientaturik daudela.

JARDUKETA





5. jardueraren eranskina



OSASUNERAKO ARRISKUAK

Sektore honetan lan-osasunerako eta ingurugirako arriskuak identifikatzea bereziki zaila da oso jarduera desberdinak barne hartzen dituelako, eta jarduera berean produktu mota baterako formulazio kimikoen konbinazio posibleak infinituak izan daitezkeelako. Beraz, egon daitezkeen mehatxuak zehazteko, arriskuak substantzia arriskutsuen familia orokorren arabera identifikatuko dira, printzipio aktiboaren edo osagai arriskutsuaren arabera, hauek orokorrean produktu-mota baterako komunak izaten direlarik, marka eta fabrikatzailea eta hau erabiltzen den departamentu edo saila edozein izanik ere.

ARLOA	SUBSTANTZIA ARRISKUTSUA	PRODUKTUA	OSASUNERAKO ARRISKUAK
SUBSTANTZIA KAUSTIKO ALKALINOAK	Amoniakoa, %10etik gorako kontzentrazioa.	Detergenteak/deskoipeztatzaileak, komun-garbitzaileak.	Kontzentrazio handitan sintoma desberdinak sortzen dira: goragaleak, muskulu-ahultasuna, takikardia, laringe-minbizirako joera. Arrisku handiagoa dutenak aerosol edo spray moduko labe-garbitzaileak dira, organismoan oso erraz sartzen baitira.
	Sodio-hidroxidoa, %5etik gorako kontzentrazioa.	Detergenteak / deskoipeztatzaileak; labe-garbitzaileak; libratzaileak.	
	Sodio-hipokloritoa, kloro aktiboko %10etik gorako kontzentrazioa.	Lisiba, garbitzaileak eta desinfektatzaileak.	
	Sodio-hidroxidoa edo potasio-hidroxidoa.	Detergenteak, pintura-desugertzaileak, hustubide-garbitzaileak, labe-garbitzaileak	
SODIO-GATZAK	Boratoak, fosfatoak, eta abar.	Detergenteak, ontzi-garbigailurako produktuak, ur-biguntzaileak.	Borato-hautsekiko esposizioak narritadura lokala sortzen du, eta ingestioak liseri-hodia eta nerbio-sistema zentrala ukitzen ditu. Fosfatoek ez dute eragin zuzenik sortzen giza-osasunarengan.
PRODUKTU KAUSTIKO AZIDOAK	Azido nitrikoa, %70etik gorako kontzentrazioa.	Desinfektatzailea.	Larruazala ukitzerakoan erredurak sortzen ditu, eta erredurek babak nahiz ultzera sarkorrak sor ditzakete.
	Azido klorhidrikoa (akuaforte)	Desinfektatzailea.	
DISOLBATZAILE ORGANIKOAK	Alkohol ez-etilikoak: alkoholisopropilikoak.	Kristal-garbitzailea, detergenteak/deskoipeztatzaileak.	Orokorrean, amasbideak eta nerbio-sistema ukitzeko joera dute eta larruazalaren deskoipeztatzaile gisa dihardute. Partikularki, disolbatzaile organokloratuak (adibidez perkloroetilenoa) epe luzera gantz-ehunetan, odolean eta zenbait organotan metatzen dira. PERC ustezko kantzerigeno bezala katalogatuta dago. Toluenoak eta xilenoak biriketako edema sor dezakete.
	Hidrokarburo aromatiko edo ziklikoak:tolueno, xileno.	Detergenteak / deskoipeztatzaileak, kristal-garbitzailean disolbagarria.	
	Organokloratuak, perkloroetilenoa.	Lehorreko garbiketa.	
	Bestelakoak: trementina-esentzia (agoarrasa), etanolamina.	Disolbatzaileak, detergenteak / deskoipeztatzaileak.	
KONPOSATU ORGANOKLORATUAK	Paradiklorobentzenoa.	Sitsen aurkakoa, intsektizidak eta aire-freskagarriak.	Ingestioak narritadura gastrointestinala sor dezake. Lurrunez begien narritadura, mukosak eta nerbio-sistemaren kalteak sor ditzakete. Esposizio luzeek gibelean eta giltzurrunen kalteak eta anemia ere sor dezakete. Ustezko kantzerigeno bezala katalogatuta dago.
LORAZAINTZAN ERABILITAKO SUBSTANTZIAK	Organokloratuak, organofosforatuak, karbamatoak, tiokarbamatoak, piretrinak eta biperidiloak.	Plagizidak (intsektizida, herbizida, fungizida eta abar).	Printzipio aktiboaren arabera desberdinak dira: dermatitis, asma, minbizia, organo eta ehun desberdinen kalteak, nerbio-sistemaren, sistema immunologikoen eta ugaltzaile-sistemaren alterazioak.
PRODUKTU KLORATU EZ-ORGANIKOAK	Kloroa, hipokloritoa.	Igerilekuan erabiltzen diren produktuak.	Sodio-hipokloritoak ehunak erre ditzake kontzentrazio altuetan. Ireziz gero kaltegarria da, eta begietan kalte nabarmenak baina behin-behinekoak sortzen ditu.
OZONO-GERUZA SUNTSITZEN DUTENAK	Klorofluorokarbonatuak (CFC), Hidroklorofluorokarbonatuak (HCFC).	Hozteko eta airea egokitzeko sistemak eta, beharbada, zenbait spray-etan bezala.	Substantzia hauek ozono-geruza degradatzen dute, eta honek eguzki-erradiazioarekiko babesik eza sor dezake, osasunari zenbait kalte eraginez: erredurak, larruazaleko minbizia eta begietako kalteak, batez ere.
METAL ASTUNAK	Merkurioa, beruna, kadmioa, zinka eta abar.	Fluoreszente erabiliak, aditiboak pinturretan eta olio lubrifikatzaileetan.	Metal astunekiko esposizioak, oro har, nerbio-sistemaren kalteak, zenbait organoren disfuntzioak eta kasuren batean minbizia ere sor dezake.

1. PREBENTZIOA

Produktzio Garbia honela defini daiteke: prozesu, produktu edo lehengaietan dauden aldaketak, produktzioan substantzia toxiko edo arriskutsuen erabilpena edo azpiproduktu arriskutsuen sorkuntza murriztu, saihestu edo ezabatzen dutenak, honela langileen eta hiritarren osasunerako eta ingurugiro-rako guztizko arriskuak murriztu egiten direlarik, arrisku hauek giro batetik beste batera lekualdatu ordez.

Prebentzio-ildo honen ondorioz produktu arriskutsuak poliki baina etengabe ordezkatu egin dira, gizartea ekologizatu egin delako, eta produktu "berdeen", "ekologikoen" edo, oro har, osasunerako eta ingurugiro-rako hain kaltegarriak ez diren produktuen eskaria gero eta handiagoa baita. Horregatik, ostalaritzaren sektorean garbiketa-lanei loturik dauden substantzia arriskutsuen erabilera saihestu edo gutxitzeko bide alternatibo bideragarri bat "ekologiko" gisa identifikatzen diren marken produktuak erostea izango litzake. Hona hemen adibide bat: pintura konbentzionalak erabiltzerakoan gomendagarriak dira ur-oinarria dutenak, %80 ura direlako eta disolbatzaile kantitate txikiak dituztelako, erretxinaren sakabanaketa errazteko xedez. Baliteke produktu hauek erabat substantzia arriskutsurik gabeak ez izatea, baina neurri txiki edo handi batean berauen kontzentrazioa murriztea lortuko dute, edo arrisku txikiena dutenak aukeratu dituzte. Beste herri batzuetan hotel askok aldaketa hau egin dute, abantaila ekologikoez gain irudi-abantailak ere lortuz, merkatua oso lehiakorra dela kontuan izanik.

Garbiketa-produktu askorentzat dauden alternatiba naturalak edo etxean eginak ez dira baztertu behar, eta gainera aurreko neurriekin konbina daitezke. Produktu hauetako asko prestatzeak dakarren nolabaiteko zailtasunak edo oso zikinkeria handiarekin duten eraginkortasunak, berauek industri mailan erabiltzea (ez etxe-mailan) mugatu edo baldintzatzen dute, lanaren politika eta antolaketan aldaketak eskatzen dituztelako (esate baterako, zereginak burutzeko denbora gehiago emanez lan-baldintzetan eraginik izan gabe, edo mantenimendu edo prebentzioko garbiketa handiagoa eginez. Ondoren, garbiketa-produktuentzako alternatiba ez hain toxikoak barne hartzen dira, hala nola, erremedio naturalagoak, tra-

dizionalak eta produktu kimikoen egungo aniztasuna gertatu baino lehen erabiltzen zirenak, baina gaur egun oraindik ere baliagarriak direnak.

♦ **Garbitzaile orokorra:** Bikarbonato sodikoa urean; borato sodikoa (bórax), xaboia eta ur beroa.

♦ **Labe-garbitzaileak:** garbiketa prebentiboa mantenimenduarekin, garbitzaile arinagoak erabiltzea ahalbidetzen dute. Bikarbonato sodikoa, ura eta gatzak.

♦ **Libratzaileak:** Mantenimendu prebentiboa. Ura irakiten, bikarbonato sodikoa eta ospina; eskuko libragailua.

♦ **Aire-freskagarriak:** aireztapena; zedro-ezpalak, aldizkariak, labanda-loreak.

♦ **Alfonbra- eta moketa-garbitzaileak:** bikarbonatoa zabaldu eta zurgagailua pasatzea.

2. PRAKTIKA EGOKIAK

Produktu arriskutsuak ordezkatzeko aukerarik ez badago, lan-portaera edo -ohituretan egin daitezkeen hobekuntza asko daude, eta hauek ingurugiro eta osasunerako arriskuak asko murrizteko aukera emango dute. Langileak dira, beren lan-esperientzia, sen ona eta sormen piska batekin, "praktika egoki" hauen gehiengoa garatu eta aplikatu dezaketenak. Hala eta guztiz ere, jarraian gai honi loturiko gomendio batzuk aipatzen dira:

AUKERAKETA ETA EROSKETA:

- Aholkua eskatzea.
- Arriskutsuak ez diren edo kalterik txikiena egiten duten produktuak aukeratzeko.
- Behar den kantitatea erostea eta soberrakinak saihestea.
- Etiketa irakurri eta produktuaren egokitasuna egiaztatzea.
- Aerosolen erabilera saihestea, batez ere korrosiboak direnak.
- Ahal den neurrian, produktu arriskutsuen erabilera saihestea (xaboi neutroa, zapi ekologikoa...).

BILTEGIRATZEA:

- Etiketa irakurtzea.
- Beti eguneratuta egongo den inbentarioa mantentzea.

- Arriskutsuak diren produktuak (toxikoak, sukoiak...) eta arriskutsuak ez direnak banantzea.
- Produktu azidoak eta oinarritzakoak banantzea.
- Kaxa asko ez pilatzea. Bero-iturrietatik (lanparak, berogailuak...), txinpartetatik (entxufeak) edo hustubide eta estoldetatik urrun mantentzea.
- Ontziak behar bezala itxita edukitzea.

ERABILERA:

- Produktu arriskutsuen nahitazko etiketa ziurtatu eta irakurtzea.
- Produktuak ez nahastea, fabrikatzaileak ez badu gomendatzen.
- Produktuak etiketarik gabeko ontzietara ez lekualdatzea.
- Behar bezala dosifikatzea.
- Ontziak behar bezala itxita edukitzea.
- Isurketak eta hondarrak saihestea aplikazioan.
- Babeserako ekipak erabili eta neurriak hartzea.
- Produktu arriskutsuak arretaz manipulatzea, kolpeak eta mugimendu zakarrak saiheztuz.

HONDAKINAK, ISURKETAK ETA JAULKIPENAK:

- Hondakinak behar bezala banantzea.
- Ontziak eta hondakinak ez erretzea eta ez lurperatzea.
- Kontrolik gabeko likido-isurketak saihestea.
- Hondakin arriskutsuak behar bezala tratatzea.
- Airearen kalitatea eta ozono-geruza degradatzen duten substantziak atmosferara ez botatzea.

EREFERENTZIAK

- Kimikako McGraw-Hill Hiztegia.
- Egizu zerbait ekologiarekin alde.
- Kanpaina: ezagutu ezazu erabiltzen duzuna.
- Commercial Cleaning Supplies.
- Uren arazketa, zaintza eta kontrolari buruzko ikastaro monografikoa.
- Daphnia. 1, 2 eta 12 zk.
- Enciclopedia de Salud y Seguridad en el Trabajo.
- Handbook of Hazardous Materials. Ed. Morton Com, 1993.
- Intoxicaciones por productos industriales (I).
- Prosperity without solution.
- Revision of the Priority Substances List.
- Riesgo tóxico: sustituir es posible.
- Toxicología Industrial e Intoxicaciones Profesionales.

Iturrii buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan honako helbidearekin: Estefanía Blount, Fernández de la Hoz kalea, 12 zk.
Tel (91) 319 76 53. Faxa: (91) 310 48 04



6. jarduera



IZENBURUA	KOKAPENA	KALKULATU DEN DENBORA
Lan osagarrien azalpena	Gela balioanitzea	2 ordu

HELBURU OPERATIBOAK

- Lan-taldeek jaso duten informazioa aztertzea.
- Ikasleek ingurugiroarekiko duten interesa ebaluatzea.
- Garatu diren jardueretan zehar eskuratu diren ezagutzak ebaluatzea.
- Etorkizuneko jardueretarako hobekuntza-proposamenak jasotzea.

BALIABIDEAK

- Ikasleek beren lanak azaltzeko ekartzen duten askotariko materiala: gardenkiak, askotariko dokumentazioa, muralak, kartulinak, eta abar.
- Ebaluaziorako galdesorta.

METODOLOGIA

Lehenik ebaluaziorako galdesorta egingo dugu. Ikasleek eskuratutako ezagutzak ebaluatzeko eta hurrengo ikasturteetan "Sukaldaritza eta ingurugiroa" unitate didaktikoaren burutzapenerako hobekuntza-proposamenak jasotzeko tresna izango da.

Irakasleek gaineratzen den eredia erabil dezakete, berau betetzeko 30 minutuko gehienezko iraupena proposatuz.

Jarraian taldek beren lanen azalpena egingo dute. Talde bakoitzak 15 minutu izango ditu azalpena egiteko. Grafikak, kartelak eta interesgarritzak jotzen gainontzeko materiala sukaldaritza-lantegian ipiniko dira.

EBALUAZIOA

JARDUERAK

- Azken ebaluaziorako galdesorta.
- Lan osagarriko landutako materialak.
- Ingurugiroaren gaineko praktika egokiak betetzen direla zaintzea.

EBALUATZEKO JARRAIBIDEAK

- Erantzunak ematerakoan zorrotz eta zehatzasun osoarekin jardutea.
- Landutako materialen orijinaltasuna eta egoitzapena.

EBALUAZIORAKO GALDESORTA

1. Sukaldaritzan erabiliko diren lau lehengairen eskuraketan lau hobekuntza adierazi.

.....

.....

.....

2. Hiru azpiproduktu adierazi, sukaldaritzan duten erabilera azalduz.

.....

.....

.....

3. Zer dira MBB letrak?

.....

.....

4. Energia berriztagarriko bi iturri adierazi.

.....

.....

5. Birzikla daitezkeen eta sukaldaritzan erabilera arruntekoak diren 5 produktu adierazi.

.....

.....

.....

6. Nola murriztu ditzakegu sukaldaritzan ontziek sortutako hondakinak?

.....

.....

7. Zer da ISO 14000?

.....

.....

8. Uraren erabilera egokirako ingurugiro-jarraibide zuzenak adierazi.

.....

.....

A. Zer izan da "Sukaldaritzza eta ingurugiroa" unitate didaktikoaren gauzarik onena?

.....

.....

.....

B. Zer hobe daiteke etorkizuneko jardueretarako?

.....

.....

.....

6. *jarduera*

IZENBURUA Lan osagarrien azalpena	 KOKAPENA Gela balioanitzta	KALKULATU DEN DENBORAK 2 ordu 
--	---	--

- ☞ Lan–taldeek jaso duten informazioa aztertzea.
- ☞ Ingurugiroarekiko dagoen interesa ebaluatzea.
- ☞ Garatu diren jardueretan zehar eskuratu diren ezagutzak ebaluatzea.
- ☞ Etorkizuneko jardueretarako hobekuntza–proposamenak jasotzea.

Eskuratu dituzuen ezagutzak eta unitate didaktikoaren garapena ebaluatzeko galdesorta batekin hasiko gara.

Ondoren, talde bakoitzak egindako lanak azalduko ditu.

Azkenik, taldeek landutako material desberdinei buruzko gogoeta egingo da eta unitate didaktiko-
ari buruzko ondorioak aterako dira.

ONDORIOAK



6. BALIABIDE DIDAKTIKOEN GIDA

MATERIAL BIBLIOGRAFIKOA

- **Vitoria–Gasteizko Udalaren Udal Aldizkaria**, 115 zk., ale horretako ingurugiroari buruzko monografi-koaren 6 eta 7. orriak.
- **EUSKO JAURLARITZA** (1997). *Desarrollo rural y medio ambiente: El futuro del sector agrario*. Garapen eusgarriari buruzko Urdaibakiko II. Jardunaldietako emaitzak biltzen ditu.
- **GREENPEACE**. (1996). *No tragues con los inmaduros. Captura y consumo de pescado ilegal en España*. Greenpeace erakundearen 0533 zk. txostena. (19 orrialdea).
- **“Sustraia” Aldizkaria**. (1997ko 4. hiruhila). *Protejamos hoy a los juveniles para asegurar la pesca de mañana*. 47 zk., 16–19 orrialdeak.
- **“Sustraia” Aldizkaria**, (1998ko 2. hiruhileko 49 zk.). *Azoka ekologikoak 1998*. 42 eta 43. orrialdeak.
- **“Sustraia” Aldizkaria**, (1996ko 4. hiruhileko 43 zk.). *Control de calidad agroalimentaria y medioambiental: contaminantes*. 67–69 orrialdeak.
- **“El Campo” Aldizkaria**, (1994). *Agricultura y medio ambiente*. Servicio de estudios del Banco Bilbao Vizcaya, nº 131.
Nekazaritza eta ingurugiroari buruzko artikulua desberdinak barne hartzen ditu, ondorengo ataletan banatuta: I. Nekazaritza aldakorra.– II. Ingurugiro–arazoak.– III. Nekazaritzaren formak.– IV. Tradizioa eta berrikuntza.– Kolaborazioak: “Gosea munduan”.
III. atalean “nekazaritzaren formak”, nekazaritza ekologikoari eta elikagaien kalitateari buruzko artikulua bana argitaratzen dira: “La agricultura ecológica: Construyendo la agricultura del mañana”, 147–168 orrialdeak, eta “El concepto de calidad de los alimentos desde la perspectiva de la Agricultura Ecológica”, 169–184 orrialdeak.
- **MORENO, M. J.** (1996). *Residuos urbanos*. Unidatate Didaktikoa. Vitoria–Gasteizko Udalaren Hezkuntzarako Udal Departamentua.
- **BOCOS, V. Y FERNANDEZ, I.** (1995). *El agua en Vitoria*. Unidatate Didaktikoa. Vitoria–Gasteizko Udalaren Hezkuntzarako Udal Departamentua.
- **CADEM**. *Consejos para reducir el consumo de energía en el Sector Residencial*. Guía práctica para el usuario de la vivienda. CADEM .(EEE taldea).
- **IHOBE**. (1997). *Catalogo de Reciclaje Industrial de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.
IHOBE, SA – Ingurugiroa Kudeatzeko Sozietate Publikoak landutako katalogo honek, zenbaki–ordenaren arabera Europako Hondakin Katalogoa (EHK) eta ordena alfabetikoaren arabera hondakinak, birzikla-tzaileen fitxak, biltzaileen fitxak eta hondakin–mota bakoitzerako kudeatzaileen fitxak bilatzeko planti-lak barne hartzen ditu. Barne hartzen diren hondakinen artean honako hauek agertzen dira: jantoki kolektiboetako eta jatetxeetako frijitzeko olioak, haragi, arrain eta bestelako abere–jatorriko elikagaien prestakuntza eta transformazioaren soberakinak, eta abar.

- **IHOBE.** (1998). *1998ko Ingurugiro Egoera Euskal Autonomia Erkidegoan*. Bilbo. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.
Liburu honetan ingurugiroaren egoera deskribatzen da, arazoak eta beren kausak, bai eta gure ingurugiroa babesteko hartutako erantzunak edo ekintzak ere.
II. zatian (ebaluazioa eta arazoak) airea, ura eta itsasertza, lurzorua, bioaniztasuna, hondakinak, zarata, arrisku natural eta teknologikoak eta hiriko ingurugiroa aztertzen dira.
III. zatian (giza-jarduerak) energia, industria, lehen sektorea, garraioa eta turismoa garatzen dira.
- **IHOBE** (1998). *Euskal Industriarentzako Ingurugiro Legeriaren Eskuliburu Praktikoa*. Bilbo. Eusko Jaurlaritza. Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.
Industria txiki eta ertainetan pentsatuz landu den ingurugiro-legeriari buruzko eskuliburua. Ingurugiroa enpresen eguneroko kudeaketan barneratzen lagunduko duen tresna arin eta erraza izan nahi du.
- **NICOLA HEWIT.** 1998. *Guía Europea para la Planificación de las Agendas 21 Locales*. Bakeaz/ Eusko Jaurlaritza.
Toki-eremuan 21 Agendaren irizpideak aplikatzeko gida praktikoa da. Udalerriko ingurugiro-ekintzarako plan sistematiko bat lantzeko lan-metodologia bat proposatzen du. Informazioa eta adibide praktikokoak eskaintzen ditu tokiko ingurugiro-arazoak hedatzeko, hiritarren partehartzea barne hartzen duten prozedurak garatzeko eta toki-eremutik ingurugiroa kudeatzeko eraginkorrak diren tresnak aplikatzeko.
- **SENLE A., BRAVO O.** (1996). *ISO 9000 en la práctica. La calidad en el sector turístico*. Gestión 2000, S.A.
Liburuan kalitate-sistemak turismoaren sektorean aplikatzeari buruz hitz egiten da: hotelak, jatetxeak, bidai agentziak, ... Arau honen aplikazioak sektore hau operatiboki hobetzeko oinarrizko kontzeptuak barne hartzen ditu.
- **MARIANO SEOÁNEZ CALVO.** (1998). *Medio Ambiente y Desarrollo: Manual de gestión de los recursos en función del medio ambiente*. Mundi prensa, 2ª edición.
Testu honek nahiz aurrekoak ingurugiroari loturik dauden alderdi asko aztertzen dituzte modu argi eta laburrean. Edukia nahiko eskematikoa da eta oso ongi antolatuta dago, kasurik gehienetan gehiegi sakontzea saihesten delarik. Bi liburu hauek egileak ingurugiroari buruzko gaietan duen esperientzia eta ingeniartzaren alorretik planteatutako arazoei buruz duen ikuspegia azaltzen dute.
- **ARANGUENA PERNAS, A.** (1994). *Auditoría Medioambiental en la empresa*. Centro de Estudios Ramón Areces, S.A.
Espainia eta EEElko oinarrizko ingurugiro-legeria barne hartzen du. Bestalde, auditoretzen prozedurak, motak eta alderdi desberdinak aztertzen ditu.
- **CLEMENS, R.B.** (1997). *Guía Completa de las Normas ISO 14000*. Bartzelona. Gestión 2000 S.A.
Lantzen dituen alderdirik garrantzitsuenak ISO14000 arauaren sorkuntza eta egiturari, konpainia baten kudeaketa-sistemarako gidarauei eta ISO 9000 arauekin duen erlazioari loturik daude.
- **EUSKO JAURLARITZAREN HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA** (1994). *Guía Práctica del Medio Ambiente*. Madril. Ecoiuris, S.A.
Ondoko kapitulu hauek bereziki interesgarriak dira:
 - *Hiri-hondakin solidoen sorkuntza eta kudeaketa.*
 - *Ingurugiro-kalifikazioa behar duten jarduerak.*
 - *Zarata eta bibrazioen sorkuntza.*
 - *Hondakin toxiko eta arriskutsuen sorkuntza eta kudeaketa.*
- **SEOANEZ, M.** (1995). *El gran Diccionario del medio ambiente y de la contaminación*. Madril. Mundi-Prensa.

- AA.VV. (1997). *Nekazal garapena eta ingurugiroa: Nekazaritzaren etorkizuna/ Desarrollo rural y medio ambiente: El futuro del sector agrario / Développement rural et environnement: Le futur du secteur agricole*. Gobierno Vasco / Eusko Jaurlaritza.

UNESCOren Lagunak taldearen ekimenez eta "Nekazaritza-sektorearen etorkizuna" gai orokorrarekin 1996ko azaroaren 27-29an Sukarrietan burutu ziren Garapen Eusgarriari buruzko Urdaibaiko II. Jardunaldietako emaitzak biltzen ditu liburu honek.

- BROWN, L. Y OTROS. *La situación del mundo*. (Urteko Txostena). Bartzelona. Apóstrofe.

Worldwatch Institute erakundeak gizarte eusgarriarantz egiten den aurrerapenari buruz landutako txostena da.

Txosten hau urtero argitaratzen da eta planetan giza-garapenari loturik dauden ingurugiro-arazo nagusiei buruz egindako ikerketen emaitzak biltzen ditu.

1996an argitaratutako txostenean honako gai hauek azpimarra ditzakegu:

- GARDNER, G. *La protección de los recursos agrícolas*. Capítulo 5.
- LLEONART, J. Y OTROS: *La crisis pesquera española: un enfoque ecológico*. Apéndice.

1996an argitaratutako txostenean, honako gai hau:

- BROWN, L. *Ante la perspectiva de la escasez de alimentos*. Capítulo 2.

1998an argitaratutako txostenean honako gai hauek azpimarratuko ditugu:

- BROWN, L. *El futuro del crecimiento: (...) Escasez de alimentos: una señal de alarma*. Capítulo 1
- MCGINN, A. P. *La promoción de una pesca sostenible*. Capítulo 4.
- BROWN, L. *Las dificultades para aumentar la productividad agrícola*. Capítulo 5.
- GARDNER, G. *La reutilización de los residuos orgánicos*. Capítulo 6.

- VON WEIZSÄCKER, E.U., LOVINS, L.H. Y LOVINS, A.B. (1997) *Factor 4. Duplicar el bienestar con la mitad de los recursos naturales*. Bartzelona. Círculo de Lectores.

Erromako Klubarentzat egindako txosten hau garapen eusgarriari egin zaion ekarpenik berrien eta garrantzitsuena da. Honi dagokionez, egileek ondokoa diote: "aurrerapen teknologiko eta zibilizatzaileari norabide berria eman nahi diogu, ekologiarekin eta munduko ekonomiarekin erlazionatuta dauden arrazoiengatik norabide-aldaketa bat egitea guztiz ezinbestekotzat jotzen baitugu. Munduko biztanleriak ezin du natur baliabideak xahutzen jarraitu".

Berrogeita hamar adibideren bitartez ("Behi-haragia: gutxiago eta kalitate hobegokoa kontsumitu", "Tomategintza: energia xahutu gabe ere egin daiteke", "Nekazaritza: «lurraren aurkako borroka» amaitzea", "Mininekazaritza biointentsiboa: tradizio zaharrak berraurkitzea", "Marrubi-jogurta: bidaia luzeak ez dira beharrezkoak", "Bitaminetan aberatsa den zumoa: urrutitik ala hurbiletik"...) egungo produkzio-prozesuetan irizpide ekologikoak sartzeak mozkinen igoera garrantzitsua dakarrela egiaztatu nahi dute.

INTERNETEKO HELBIDEAK

- ⌘ Europako ingurugiroaren agentzia.

<http://www.eea.dk>

- ⌘ Europako Batzordearen ingurugiroari buruzko dokumentuak.

<http://europa.eu.int/comm/dg11/docum/index.htm>

- ⌘ Aula Verde. Revista de Educación Ambiental de la Junta de Andalucía.

<http://www.cma.junta-andalucia.es/publicas/aulaverde/aulaverde.htm>

- ⌘ *Ingurugiro-hezkuntza. Quercus Sarea.*
<http://www.quercus.es/EducaAmbient/>
- ⌘ *Eusgarritasuneranzko hiri eta herrien sarea (Katalunia).*
<http://www.diba.es/xarxasost/xrxmarcscst.htm>
- ⌘ *Ekonomia Ekologikoaren Sozietate Europarra.*
<http://www.c3ed.uvsq.fr/esee/>
- ⌘ *ADENA WWF, ingurugiroaren egoera.* Inglesez.
<http://www.panda.org>
- ⌘ *European Foundation for Quality Manegement..* Inglesez.
<http://www.efqm.org>
- ⌘ *Ministerio de Medio Ambiente.*
<http://www.mma.es>
- ⌘ *Laneko Segurtasun eta Higienerako Institutua.*
<http://www.mtas.es/insht>



1. eranskina: IHOBE



INGURUMENAREN KUDEAKETA ERAKUNDEEN IKUSPEGITIK

Zer da IHOBE?

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailera atxikitako Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publiko bat da.

Zeregina: giza jardueraren garapen–esparru orotan ingurumenaren kudeaketa zuzena lortzea.


2001 baliabideak: 38 lagun, eta 2.700 milioiko aurrekontua.

Sailak: Ekoizpen Garbia, Ingurumen Azpiegiturak, Lur Poluituak.

IHOBE S.A. sozietate publikoaren zereginak, nagusiki honako esparru hauetara bideratzen dira:

- Euskal industria,
ingurumenaren kudeaketaren eta ekoizpen garbiaren bitartez ingurumenaren gaineko eragina murriztea.
- Euskal administrazioa,
lur poluituen kudeaketa erraztea, laguntza moduan ingurumen–azpiegiturak eraikitzea, 21 Toki Agenda sustatzea eta Ingurumen Sailari bere ingurumen–estrategiaren plangintza egiten laguntzea.
- Gizartea,
herritarrengan eragina duten ingurumen–mailako berariazko inpaktuak eta arazoak murriztea (HCH...).

Horretarako, lehenik eta behin industriaren poluzioa prebenitzeko, lur poluituak bereizteko eta ingurumenaren babesa ziurtatzeko eta hobetzeko, ingurumen–azpiegiturak ezarri behar dira, eta xede horrekin, ekimenen plangintza eta garapena gauzatzeko hainbat jarduera garatzen da; hori guztia hiru jarduera–arlotan antolatzen da.



Sozietate Publiko honen zereginak euskal industriaren lehiakortasuna sendotzera zuzentzen dira, eta horretarako, ingurumen–faktorea behar bezala ulertu eta bereganatu behar da; gainera, sozietate publiko honek enpresa–sektorea sustatu nahi du, hartara euskal industria–sareak kontzeptu, ekipo eta teknologia garbiei dagokienez dituen eskakizunei erantzuteko. Hortaz, IHOBE, S.A. sozietate publikoaren helburua da ingurumen–egoera hobezina lortzea, eta xede horrekin lan egingo duen giza taldeak diziplina anitzetan lan egiteko gaitasuna eduki behar du, eta modu horretan lortuko da Euskal Autonomia Erkidegoaren ingurumen–arazoak konpontzea.

A.- Zer eskaintzen dio IHOBE sozietateak Euskal Enpresari?

- INFORMAZIO PRIBILEGIATUA. Ingurumen Adierazleen Bankua eta industria-mailako ingurumenari dagokionez esperientzia aurreratuak.
- INGURUMENAREN KUDEAKETA MODU ERAGINKORREAN EZARTZEA ENPRESETAN. Lanabes eta metodo optimizatuak.
- ENPRESAN ERABAKIAK HARTZEKO IRIZPIDEAK. Ingurumenari buruzko argitalpen eta programa teknikoak.
- KALITATE ZIURTATUA. Adituen nazioarteko sarearen laguntza.
- AURRE-ARAUAK. Kontsulta eta Orientazio Zerbitzua. (IHOBE-LINE).
- ENPRESA BAKOITZAREN PREMIEN ARABERAKO INGURUMEN-IRTENBIDEAK.

A1.- INGURUMENA KUDEATZEKO ZERBITZUA

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak sustatutako “1999–2001 Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Programaren” helburu nagusia da euskal enpresen ingurumen-inpaktua murriztea; 1999–2001 urteen bitartean 500 euskal enpresetan ingurugiroa kudeatzeko planak ezarriko dira.

IHOBE sozietateak orientabideak eskaintzen dizkie enpresei hondakinak murrizteko, eta xede horrekin Ekoizpen Garbiaren abantailak aurkezten ditu (poluzioaren prebentzioa, laneko baldintzen hobekuntza, ekonomia-etekinen areagotzea eta lehia-kortasun handiagoa).

TALDE ISO-14

IHOBE S.A. sozietateak dinamizatutako enpresa-talde bat da; helburu nagusia da ISO 14001 modu optimizatuan ezartzea, bai epeari dagokionez bai kostuari dagokionez, eta horretarako taldearen sinergia aprobetxatuko da.

EKOSCAN

Ingurumena hobetzeko lanerako plan bat da eta enpresaren lehentasunezko arloetan ezartzen da. Hondakinak, igorpenak edo isurketak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainetara (ETEak) zuzentzen da, eta emaitza bezala ingurumenaren hobekuntza azkar lortzea eta ISO 14001era pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea lortu nahi da.

Plan honen oinarrian ekonomia- eta ingurumen-mailako diagnosi aurreratu bat dago, eta enpresaren berariazko hobekuntza lortzeko talde batek parte hartzea sustatzen da.

Aldi berean, enpresako beste zenbait arlotan ere aplikatu daiteke plan hau, kalitate-sisteman bertan, edo ISO 14001 arauaren ziurtagirirantz pixkanaka-pixkanaka hurbiltzea sustatu daiteke.

A2.- INGURUMEN-ORIENTAZIORAKO ETA -DOKUMENTAZIORAKO IHOBE-LINE ZERBITZUA

www.ihobe.es

IHOBE sozietatearen zerbitzuei buruzko informazioa, eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren programei buruzko informazioa web-orri honetan dago.

Helbide honetan “Industria-birziklapenaren katalogoa” eta “Ingurumen-legeriari buruzko esku-liburua” lor daitezke, baita ISO 14001 araua duten enpresen zerrenda bat eta IHOBE sozietateak dohain banatzen dituen argitalpen gehienak ere (pdf formatuan).



1. eranskina: IHOBE



IHOBE-LINE

Euskal enpresentzako ingurumen-informazioa emateko doako zerbitzua. Honako alderdi hauei buruzko informazioa lor daiteke:

- Enpresara zuzentzen den legeria.
- Dirulaguntzak.
- IKS (ISO 14001).
- Ekoizpen garbia (etekinak areagotu hondakinak murriztuz).
- Poluzioaren prebentzioa.
- Teknologia garbiak.
- Hondakinen kudeatzaileak.
- Hondakinen eta airera egiten diren igorpenen minimizazioa.
- Birziklapena.
- Ontziak eta enbalajeak.
- Zarrastelkerien murrizketa.
- Isurkinen tratamendua.

ZERBITZU TELEFONIKOA (900150864)

Euskal enpresen galderei berehalako erantzuna ematen die. Zerbitzu honen ordutegia 9:00etatik 13:00etara da.

INGURUMENARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio Zentroak ingurumenari buruzko bibliografia-baliabideak eskaintzen ditu.

A3- PRESTAKUNTZA-ZERBITZUA ETA ATE IREKIAK

IHOBE sozietateak ingurumen-prestakuntzari dagokionez egiten duen eskaintza, enpresako ingurumen-esparruko zuzendari eta arduradunengana zuzentzen da, prestakuntza-mailako hainbat eskaerei erantzuteko. Hori dela eta, euskal enpresaren eskaera asetzeko eta ingurumena hobetzeko ekindako bidean laguntzeko, ISO-14001 Tailerra, Ate Irekiak eta Prestakuntza garatu dira beste zenbait erakunderekin batera, hala nola SPRI eta EUSKALIT. "Ate irekien" bitartez Euskal Herrian buru diren enpresek egindako esperientzietatik ikastea lortu nahi da, enpresa horietako zuzendaritza-taldeekin iritziak trukatu direlarik.

A4- ENPRESARI LAGUNTZEKO ARGITALPENAK

4.1. INGURUMEN KUDEAKETARI BURUZKO ARGITALPENAK

"Euskal Autonomia Erkidegoko Industria Birziklapenaren katalogoa"

Euskal industria, administrazio, elkarte, aholkularitza eta injinerutzetara zuzentzen den lanerako tresna bat da. Katalogoaren helburu nagusia da industriako hondakinak birziklatzeko bideak sustatzea, enpresei erabilgarri dauden baloralizazio-bideak ezagutzeko aukera emango zaielarik. Berreskurapen-bide bakoitzaren informazioarekin batera, baldintza tekniko eta ekonomikoak, berreskurapen-prozesuak eta beste hainbat alderdi ere aurkeztu dira.

CDan eta web-orrian aurkituko duzu.

"Euskal Industriarako Ingurumen Legeriari buruzko Esku-liburu Praktikoa"

Esku-liburu honetan jarduera jakin batekin eta bere interpretazioarekin erlacionatutako legeria bereizteko hainbat jarraibide ematen dira. Enpresa-mailako betebeharrak zeintzuk diren zehazten dira, baita ingurumen-arlo bakoitzean dauden eskumeneko enpresak eta burutu beharreko kudeaketak ere.

Ingurumen-mailako legeria betetzea erraztu nahi da, eta erantzukizun zibil edo delitu ekologikoagatiko zigorrak aurreikusi eta saihestu nahi dira, eta bezeroen, hornitzaileen edo orokorrean gizartearen eskaerei erantzun nahi zaie.

4.2. EKOIZPEN GARBIAREN ARGITALPENAK

Honako gida tekniko hauek landu dira:

- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Estaldura Elektrolitikoak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Beroko galbanizata.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Moldeaketa-hondarrak burdinaren galdaketetan.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Altzairutegietako zepak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arrain Kontserbak.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Pinturak Karrozerietan aplikatzea.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Metalaren mekanizata.
- Hondakinak eta Igorpenak Minimizatzeko Liburu Zuria: Arte Grafikoen sektorea.

4.3. INDUSTRIA SENTSIBILIZAZIOAREN ARGITALPENAK

“IHOBE ISO 14001 esku-liburua: ezarpenerako urratsak”

Ingurumen Kudeaketako ISO 14001 Araua ezarri nahi duten enpresentzako esku-liburu praktikoa. Lan honi esker ezarpen-prozesua arindu egiten da, formatua oso erabilgarria delako eta enpresa batean ISO 14001 araua ezartzeko beharrezkoa den dokumentazio osoa eskaintzen duelako.

“Ekoizpen Garbia Euskal Herrian”

Hiru txosten dira eta bertan biltzen da 100 enpresek baino gehiagok, IHOBE sozietatearekin batera, lankidetzak-neurriak martxan jartzeko jarraitutako prozesua. Ekoizpen Garbia lortzeko neurri zehatzak ezarri ondoren izandako emaitzak aurkezten dira, baita enpresa hauek lortu dituzten ingurumen- eta ekonomia-mailako hobekuntzak ere.

Industrien hedapenerako horma-irudiak eta materialak

Honako material hauek landu dira:

- Ekoizpen Garbiaren etekinak.
- Lurzoru poluituak.
- Nola garbitu hobeto piezak ura aurreztuz? Enpresarentzako aholku praktikak.
- Hondakinak murrizteko 200 gomendio.
- Hondakinak minimizatzea errentagarria da.

Bideoak

- Ekoizpen garbia. Gure enpresen etorkizuna.
- ISO 14001, zure enpresarentzako aukera.
- Lurzoru poluituen kudeaketa. Zure udalerriarentzako erronka.



1. eranskina: IHOBE



4.4. BESTE ZENBAIT ARGITALPEN

“2000 Industria Ekobarometroa: euskal enpresaren ingurumenarekiko jarrera eta konpromisoa”

Honako txosten honen oinarrian Euskal Herriko 532 industria-enpresetan egindako galdeketa dago; galdeketaren helburu nagusia da euskal enpresak ingurumenaren aurrean agertzen duen jarrera, aurkitzen dituen oztopoak, hartzen duen konpromisoa eta garatzen duen jarduera zehaztea.

B.- Zer eskaintzen du IHOBE sozietateak lurzoru poluituei dagokienez?

Helburu nagusia da lurren poluzioaren ondorioz sortutako arazoei irtenbide bat ematea, eta horretarako, kudeaketa-tresna desberdinak sortuko dira eta toki-administrazioei laguntza eskainiko zaie. Horrez gain, Lurzoru Poluituen Informazio Sistema eguneratuta edukitzea lortu nahi da eta lurra bezalako baliabide baten prebentzioa, ikerketa eta berreskurapena sustatu nahi dira.

LURZORU POLUITUEN INFORMAZIO-ZENTROA: GEOIKER

Euskal Herriko Lurzoru Poluituen Informazio Sistema, toki-agintaritzen eta lurren jabeen edo erosleen eskura.

C.- Ingurumen Sailburuordetzak zein ingurumen-azpiegitura sustatzen ditu IHOBE sozietatearen bitartez?

IHOBE sozietatearen helburu bat da ingurumenaren babesa eta hobekuntza ziurtatzeko azpiegiturak antolatzea.

HONDAKINEN TRATAMENDURAKO BIRZIKLAPEN-PLANTAK:

- Erabilitako olio, agortutako taladrinak eta erabilitako disolbatzaileak birziklatzeko zentro aurreratua.
- HCH puruaren tratamendurako planta.
- Pilen tratamendurako eta birziklapenerako planta (Recypilas).

OLEAZ, ERABILITAKO OLIOEN ANALISIRAKO ZENTRO OFIZIALA

Bere lana da Euskal Autonomia Erkidegoan jatorria duten erabilitako olioaren ibilbidea kontrolatzea. Laborategi honetan, urtean, erabilitako olioaren 10.000 Tm kontrolatzen dira.

I+G INGURUMEN LABORATEGIA

Teknologien planta pilotuak eta beharrezkoak diren ingurumen-azpiegiturak ezarri baino lehen bideragarritasun teknikoaren eta ekonomikoaren azterketa.



2. *eranskina*: EKOINDUSTRIA



EKOINDUSTRIA EUSKAL HERRIAN

Giza jarduera orok, eta bereziki industria-jarduerak, ingurugiroaren gaineko eragina izan ohi dute, izan ere natur baliabideak erabili, eraldatu egiten dira, eta azkenean, natur baliabideen hondakinen kondarrak geratzen dira.

Ingurugiroaren esparruan produktuak eta zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa-multzoa, Ekoindustria izenez ezagutzen dugu.

Gainontzeko industriak, ingurugiro-zerbitzuen eskatzaileak dira, eta aipatu industrien ingurugiroarekin duten erlazioa, euren industria-politikan ingurugiro-mailako faktoreak kontuan hartzen dituzten unetik hasten da.

Ekoindustria dugu, gainontzeko industria-sektoreetan zehar hedatzen den eta aplikatzen den industria-sektore bakarra, Enpresa-Ingurugiroa erlazioari dagokionez irtenbideak eskainiz.


EAEn industria-tradizio luzea dugu, mende honetan barna garatu dena. Ondorioz, bi fenomeno osagarri sortu dira:

- alde batetik, industriak izandako garapena ingurugiroaren narriadura eragin duen arrazoi nagusietako bat izan da,
- bestalde, EAEn enpresa-gaitasun izugarria dagoenez, ingurugiro-mailako arazoei erantzun zabala eman ahal izan zaie, Ekoindustriaren sektore zabal bat sortuz.

Une honetan (1998), EAEko Ekoindustriaren sektoreak 450 enpresa baino gehiago biltzen ditu, eta fakturazioa 200.000 milioi PTA ingurukoa da, alegia, EAEko BPGren ia %4,5.

Aipatu fakturazioaren %70, EAEko mugetatik kanpo egiten da, beraz, EAEn kokatuta egonda ere, merkatu nagusia Autonomia Erkidegoaren mugetatik kanpora dago.

Horrela, Euskal Ekoindustriaren merkatua, zalantzarik gabe, Espainiako Estatuko nagusienetakoa dugu, jarraian azaltzen den grafikoan baieztatu daitekeen bezala.




1. grafikoa. Euskal Ekoindustriak Estatuan duen agerpena.

(1998) Euskal Ekoindustriaren beste zenbait datu, honako hauek dira:

1. TAULA. Beste mekatu batzuekiko konparaketa

	EUROPAKO BATASUNA	ESPAINIAKO ESTATUA	E.A.E.
Fakturazioa	140 Miliar EURO	3.200 Milioi EURO	1.190 Milioi EURO
BPG gaineke %	%1,4	%0,7	%4,47
Euroak/Kapita	416,63	69,39	246,06
Zuzeneko enplegua	1.000.000	37.600	6.500

Ingurugiro-arloka, euskal Ekoindustriaren sektoreko enpresen antolamendua honako hau da.



2. grafikoa. Ingurugiro Arloka, Euskal Ekoindustriaren antolamendua.

Euskadiko Ingurugiro-enpresen Katalogoan izena emandako 456 enpresen artetik, %56k hondakinen-arloan jarduten du, eta %46k, berriz, uren arloan, gainontzeko ingurugiro-arloak gaindituz.

Ingurugiro-sektoreko ekoizpen-egitura hau, Estatuan eskaintzen denarekin bat dator, baita Europan eskaintzen denarekin ere, izan ere, bai politika bai legeria aurreratuena esparru honetan daude.

Euskal Ekoindustriaren ondorioz azpimarragarriena dugu, esparru honetako enpresa-kopuruaren eta enpresen kalitatearen arabera, merkatuan ondo kokatuta dagoen sektore bat dela, eta nahikoa anitza, Ingurugiroarekiko errespetuarekin bateragarria den garapena lortzeko, oraindik ere izango diren erronkei aurre egiteko prestatuta dagoena.

Zentzu honetan, biztanleriaren kontzientziazioa eta praktikan jartzea, ingurugiro-legeriaren eta merkatuko arau berrien bitartez, kontsumitzaileen interesetan eta bizi-kalitateari dagokionez balore berrietan oinarrituta, bi alderdiak izango dira Euskal Ekoindustriaren garapenerako ardatz eragile, bai enpresa eskatzaileei dagokienez, bai administrazioari dagokienez ere.



EKOINDUSTRIA



ZER DA ACLIMA?

ACLIMA, Euskal Herriko Ingurugiroko Cluster Industrien Elkarketa, irabasi–asmorik gabeko enpresa–elkartea da eta bere helburu nagusia Euskal Ekoindustria eta horrekin zerikusia duten industriak sustatu eta hobetzea da, aldi berean ekonomiaren eta enpleguaren garapenaz gain gizarteko arlo guztietan ingurugiro–jarduerako eta ingurugiroa errespetatzeko filosofia bultzatzen delarik.

ACLIMA 1995ean eratu zen, enpresa–talde baten ekimenari esker, Eusko Jaurlaritzaren ekintza estrategikoak sustatuta. ACLIMA Eusko Jaurlaritzaren jarduteko esparru baten barruan kokatzen da, alegia, Lehiakortasun Plana, zeinek helburu bezala euskal industria aukera berrien merkatua izan daitekeen honen, Europako Merkatu Bakarra hain zuzen, buru jartzea duena.

Jada ia lau urteko ibilbidea egin du, eta lau urte horietan, euskal industriaren ingurugiro–erreferente bihurtu da, bere inguruan esparru honetako enpresarik garrantzitsuenak bilduz, eta Ekoindustriaren garapena sustatuz.

Erakundearen barruan HIRU bazkide–mota daude: Ohorezko Bazkideak, Zenbakizko Bazkideak eta Bazkide Lankideak.

Lehenengo multzoan, hots Ohorezko Bazkideen multzoan, honako hauek biltzen dira:

- Eusko Jaurlaritza. Lehiakortasun Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritza. Ingurumen Sailburuordetza.
- Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- IHOBE Ingurugiro Kudeaketarako Elkarte Publikoa.
- SPRI. Industria Sustapenerako eta Birmoldaketarako Elkarte Publikoa.
- EHU. ITIGET Industri eta Telekomunikazioen Injineruen Goi Eskola Teknikoa.
- Deustuko Unibertsitatea.
- Nafarroako Unibertsitatea.
- EITE. Ikerketa Zentroen Euskal Erakundea.
- Euskal Merkataritza Ganbarak.

Zenbakizko Bazkideen artean honako hauek aurkituko ditugu:

ACB	CINSA EP	M+A+S
ACIDEKA	COINPASA	MOYVEN
ADIRONDAK	CONSORCIO DE AGUAS	NEURTEK
AFESA	DIDIER TÉCNICA	NOVOTEC
ALFUS	EKONOR	ONDOAN
ARUSA	ELMET	OÑEDER
ASER	IBERDROLA	PRICewaterHOUSE
ASFALTOS CAMPEZO	ICG–20–25	REMETAL
AZTI–FUNDACIÓN	IDEMA	RONTEALDE
BORG SERVICE	IDOM	SADER
BYCAM	INDUM. RECYCLING	SENER
CADAGUA	INGELECTRIC TEAM	SICE
CEMENTOS LEMONA	INGURU	SMURFIT NERVIÓN
CEMENTOS REZOLA	INZERGEST	TRADEBE
CESPA GR	LIMIA & MARTIN	ZABALGARBI

Azkenik, Bazkide Lankideak honako hauek dira:

CIDETEC

GRAVER

SANZ & SAIZ


DPA

MIRANDAOLA

ACLIMAKo enpresek, berrogeita hamar guztira, Euskal Herriko Ekoindustriaren sektoreko %11 osatzen dute, lauhun eta berrogeita hamasei enpresa bilduz.


1998 urtean, guztira 1.093.051 Milioi PTako (6.569 Meuro) fakturazioa egin zen, Ingurugiroaren berariazko fakturazioa 68.691 Milioi PTA (412 Meuro) izan zelarik; kopuru horrek, 1996ko datuekiko %50eko gorakada adierazten du, eta Euskal Ekoindustria guztiaren fakturazioaren ia %35.

Gorakada honek bi arrazoi nagusi izan ditu: lehenengoa, ACLIMAKo enpresen ingurugiro-zerbitzuen gorakada esanguratsua. Bigarrena, bazkide-kopurua areagotu izana, %35 baino gehiago bi urtetan.



3. grafikoa. Euskal Ekoindustrian ACLIMaren fakturazioaren portzentajea.

ACLIMAKo enpresek Ingurugiroan egindako fakturazioa, EAEko BPGren %1,4 da.



4. grafikoa. Lurralde-esparru bakoitzean, BPGren gaineko Ingurugiro-gastuaren portzentajea.




EKOINDUSTRIA




Datu horiek aztertuz gero ikus dezakegunez, ACLIMako enpresen Ingurugiroak EAEko BPGren gainean duen eragina, Europako Batasuneko Ingurugiroarenaren antzekoa da, eta Espainiako Estatukoarena baino dexente handiagoa.

Geografia-esparruka, ingurugiro-fakturazioak jarraian azaltzen den antolamendua du.



5. grafikoa. Geografia-esparruka, ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioa.

Ikus daitekeen bezala, fakturazio gehiena Euskadin egiten da, eta Estatuko gainontzeko herrialdeak daude jarraian kokatuta. Nazioarteko fakturazioa, guztizkoaren %23 izatera iristen da. Aipatu kopuruak, EAEko Ingurugiro Klusterrarekin bat datoz, izan ere ACLIMako fakturazioaren %60 Euskal Herritik kanpo sortzen da, Euskal Ekoindustriaren %70en parean.



6. grafikoa. ACLIMaren egitura, fakturazio-tarteen arabera.


ACLIMako enpresa bazkide gehienak, 10.000 milioi baino gehiagoko fakturazioa duten enpresa-multzoan sartzen dira. Edonola izanda ere, daturik interesgarriena, Erakundea osatzen duten enpresen artean, fakturazioaren arabera banaketa orekatua egiten dela da.

Langile-kopuruaren arabera, enpresak jarraian azaltzen den bezala xehatu daitezke:

2. TAULA. Enplegatuen arabera, enpresa-kopurua.

ENPLEGATU-KOPURUA	ENPRESA-KOPURUA
0<50	23
>=50<100	8
>=100<200	5
>=200<500	9
>500	5

Taulan baieztatu daitezkeenez, ACLIMako enpresa gehienek, %45 hain zuzen, 50 langile baino gutxiago dituzte. Hala ere, ACLIMA Elkartearen osatzen duten enpresak ez daude, oro har euskal Ekoindustriako enpresak bezain atomizatuak, izan ere, euskal Ekoindustriako enpresen %85, 50 langile baino gutxiago ditu.



7. grafikoa. EAEn eta ACLIMAn fakturazioa/enpresa


ACLIMako enpresen Ingurugiro-fakturazioak, euskal ekoindustriaren guztizkoaren %34 biltzen du; horrez gain, enpresa bakoitzagatik fakturazio-ratioa ere azpimarragarria da, alegia, ACLIMari dagokionez 1373 milioi izatera iristen da, eta EAEko enpresei dagokionez, berriz, 485 milioi.

ACLIMako enpresentzako lanean ari den lagun-kopurua 20.593 da; horietan 2200 zuzenean ari dira Ingurugiroaren esparruko gaietan lanean.

Ingurugiroari dagokionez, enpresen sektore edo negozio-mota desberdinei dagokienez, jarraian azaltzen dugu ACLIMaren egitura.




EKOINDUSTRIA



8. grafikoa. Fakturazioa sektoreka.

Jarduera-sektoreen arabera fakturazioa aztertuz gero, Kudeatzaileen sektorea da buruan dagoena, eta aldi berean, Kudeatzailearen, Guztia prest zerbitzuaren eta Birziklapenaren arloen artean, eta Aholkularitzaren Ekipoen eta Ingeniaritzaren arloen artean dikotomia argi bat dago, zeintzuk gainontzekoekin konparatuz, %90eko fakturazioa duten. Horren arrazoia da, sektore aurrerakoienetan dauden enpresak, enpresa handiak, sendotuak direnak, ekoizpenarekin eta azpiegituren lan handiekin erlazionatuta daudela.


Ingurugiro-arloen edo -esparruen garrantzia, ondorengo grafikoan ikus daiteke:



9. grafikoa. Ingurugiro-arloka fakturazioa.

Fakturazioaren arabera, Hondakinak eta Uren ingurugiro-arloen artean menpekotasuna ikus dezakegu; biak daude lehen aipatu ditugun negozioekin (Kudeatzailea, Guztia prest eta Birziklapena, hain zuzen), estuki erlazionatuta.

Bestalde, ACLIMako enpresak gero eta kontzientziatuago daude eta laguntzeko prest, beraz, enpresen kudeaketa eraginkorragoa egin nahi dute eta aldi berean, ingurugiro-es-tandarrak bete.



10. grafikoa. ISO9000 eta ISO 14000 ziurtagiria lortu duen edo tramitatzen ari den enpresa-kopurua.

Hemendik gutxira, ACLIMako enpresen %60k ISO9000 Kalitatearen ziurtagiria, eta %30ak, berriz, ISO 14000 Ingurugiro ziurtagiria lortuko dute.

2005 urterako, ACLIMako enpresa guztiek lortu beharko dute Ingurugiroa Kudeatzeko Sistema baten ziurtagiria.

Amaitzeko, ACLIMako enpresek osatzen dute Euskal Ekoindustria guztiaren zati garrantzitsu bat (enpresen %11, baina fakturazioaren %34), eta helburu nagusitzat Euskadiko Ingurugiro-baldintzak hobetzea, eta aldi berean gero eta indartsuago dagoen industria-sektore hau sustatzea eta dinamizatzea dute; eta hori EAEko industria-esparruaren barruan, garatzeko aukera paregabea dugu.



3. eranskina: INGURUGIROAREN KUDEAKETA



ASEREN INGURUGIROAREN KUDEAKETARI DAGOKIONEZ, ESPERIENTZIA PRAKTIKOA

ENPRESAREN PROFILA

SORRERA: 1985

ERAGIKETEN HASIERA: 1987ko maiatzak 1

GIZARTE-XEDEA: *altzairutegien hautsen tratamendua eta burdina ez diren metalen galdaketa, eta Waeltz Labean trata daitezkeen eta zinka duten beste zenbait hondakin.*

EKOIZPEN-PLANTA: 21.650 m²ko lursaila.

KOKAPENA: *Bilborako errepidea -Plentzia, 21
Asua-Erandio*

PLANTILLA: 45 lagun (4 I+G bezala lanean).

1995/1996 EKITALDIKO FAKTURAZIOA: 2.600 milioi pezeta.

ESPORTAZIO-ZIFRAEKOIZTUTAKO: *Waelz oxido guztia.*

INDUSTRIA-PROZESUAL: *Murritzeta/oxidazio pirometalurgikoa, errotazio-labean, luzeran 50 m eta 3,50 m-ko diametroa.*

TRATAMENDU-GAITASUNA: 80.000 tona hondakin /urteko.

LEHENGAI OSAGARRIAK: 12.000 tona hondar /urteko.
25.000 tona koke /urteko.

EKOIZPEN-GAITASUNA: 30.000 tona Waelz oxido garbitua /urteko.
60.000 tona Ferrosita, zepa geldoko oinarria
duena /urteko

Ingurugiroaren eta ingurugiroaren babesa ASERen kulturaren zati dira hastapenetatik, izan ere ASERen oinarrian aurkituko ditugun bi alderdi dira; alegia, zenbait barne-elementuk euskarri sendoa eskaintzen diote, eta beste zenbait kanpo-elementu dinamizatzailerik, bizirik mantentzen dute, hobetzeko eta une honetako korrante desberdinetara egokitzeko berezko prozesu baten barruan, hartara ekimenik eta lehiakortasunik ez galtzeko.

Enpresaren ingurugiro-politika jasaten duten elementuen artean, honako hauek aurki ditzaizkegu:

- ingurugiroa erabateko kalitatearen zati delaren uste osoa, beraz, ingurugiroaren kudeaketa enpresaren kudeaketa osoaren zati bat da;
- elkartearen jarduera nagusiaren izaera bera, hondakin batzuen tratamendua hain zuzen, arriskutsutzat sailkatzen da Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen 20/1986 Oinarrizko Legean, metal astunei dagokienez duen edukiagatik.

1990eko otsailan, 833/1988 Dekretua indarrean sartu zen; Dekretu honek Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen 20/1986 Oinarrizko Legearen Araudia onesten du, baina aipatu Dekretua indarrean sartu baino zazpi hilabete lehenago, jada ASERek kudeaketarako baimena eskatu zuen, eta 1990 urtean bertan eman zioten, PV/2/1-90 zenbakiarekin.

1. IKS BAT EZARRI BAINO LEHEN, HARTU BEHARREKO ERABAKIAK

Kudeaketarako sistema bat ezartzeko prozesuari ekin baino lehen, ezarpen-esparrua edozein izanda ere (Kalitatea, Ingurugiroa, beste zenbait), enpresaren Zuzendaritzak, argi

izan behar du, kontzientziatuta egon behar du, aipatu ezarpenak berarekin dakartzan ahalgina, etekinak, jarduerak, kostua eta bestelako eskakizunak onartzeko. Hori guztia onartu ezean, kudeaketarako sistemaren ezarpenak porrot egingo du.

Enpresaren Zuzendaritzak, bere kudeaketarako sistemaren ezaugarriak eta eragina definitu behar ditu. Xede horrekin, ASERek Lloyd's Register aholkularitzaren laguntza izan zuen, horretarako jardunaldiak antolatuz, non zuzendaritzako eta tarteko agintaritzetako lagun guztiek parte hartu zuten, eta bertan argitu zituzten IKS baten ezaugarriak eta hedapena definitu ahal izateko zalantza guztiak.

Jardunaldien ondoren, ASEReko buruek, lehenengo etapa bezala IKS puru bat ezartzea erabaki zuten, hau da, kudeaketa sistema bera dena hartu, kanpo-jarduerak at utziz, hala nola ingurugiro-deklarazioa edo ingurugiro-egiaztapena. Urrats horiek, sistema ezarri eta ziurtatu ondoren emango ziren.

Horrexegatik, aukera desberdinak aztertu ondoren, IKSri ekitea erabaki zen, BS7750 arauari jarraiki, eta ISO 14001 araua onetsi bitartean, jada errealitatetzat jotzen zena. Aldi berean, kanpo-erakunde bat kontratatzea erabaki zen, ezarpen-proiektuari dagokionez, prestakuntza, aholkularitza eta jarraipena egiteko, eta ondoren, 2 urteko epean, sistema ziurtatzeko.

Hurrengo etapa, eta ziurtatu ondoren, 1836/93 Europako Araudia, EMAS izenez ezagutzen dena, betetzeko aurrera jotzeko aukera aztertzea zen.

